



hiruka

204. zenbakia
2024ko otsaila

LEHEN KARLISTALDIA Lutxanako bataila

Kornetak salbatuak



EUSKARA, AUKERA PAREGABEA



Errotulua ipintzeko
dirulaguntzak



Itzulpen zerbitzua



Maketatze- eta
inprimatze- zerbitzua



Doako materiala
zure saltokirako



Langile euskaldunak
behar dituzu?



Hizkuntza-aholkularitza
pertsonalizatua



Euskara ikastaroak merkataritzako
eta ostalaritzako langileentzat

*Egin zaitez Euskararen Laguna Saltokia
eta gozatu abantailez!*

☎ 688 665 112

94 466 00 10/11

gehi@getxo.eus

euskara.zerbitzua@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskara

*Sartu gure
katalogoan!*



Getxo
bizi ezazu



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Bilboren patua erabaki zuen Lehen Karlistaldiko bataila
- 10 Herriz herri
- 20 Hirudika: Kurene Pilota Elkartearen egutegi berezia
- 24 Berbetan: Agatha Libano, Silviaren abokatua
- 28 Uribe Kostako agenda
- 31 Musikhariak: Vulcanizadas
- 32 Agate Deuna, iruditan
- 33 Auzoko Elkarrizketak, aniztasun linguistikoaren inguruan
- 34 Iritziak eta horoskopoa
- 35 Usategi
- 36 Kirolak
- 37 Urdulizko menditalde berria
- 38 Faceguk: TAO Erandion?
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denborapasak
- 42 Aitormenak: Kai Nakai
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola eta Amaia Legarreta

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Aroa Sotelo Velasco, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Janire Enzunza, Iñigo Astiz, Gorka Mostajo, Ainhoa Ortells eta Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Berba egin

JANIRE ENZUNZA Filologoa eta irakaslea



Beharrera egiten dodazan joan-etorrietan, irratia entzun ohi dot. Lehen, irratsaio biziagoak entzuten nebazan, goizetan ondo izartzekoak-edo, baina aspaldion gurago dot albistegiak, alkarriketak edo kultura-kontuak entzun. Izartzeko be balio deuste, eta beste era batera.

Orain dala egun batzuk psikologo batek esaten eban gizartea arriskuan dagoala, batez be jentea aplikazino bidez gehiago komunikaten dalako, berba eginda baino. Berak uste eban arrisku-talderik handiena gazteena dala, eta aitatzen eban, alkarregaz egonda be, bakotxa bere telefonoagaz egoten dala sarritan, alkarri berba egin barik.

Ni guztiz zurtuta lotu nintzan, eta egun horretan kontua aitatu neutsen neure ikasle nerabeei. Azalpena emon eta jarraian, askok barre egin eben, eta ulertu neban identifikauta sentidu zirala. Esan neutsen egoerea oso larria erexten jatala, eta alkarregaz berba egitearen garrantziaz konturatu behar dirala.

Benetako komunikazinoa ezin da bigarren mailako bihurtu. Aurrez aurre gagozanean, berbak ez ezik, zuzeneko beste ezaugarri asko be jasoten doguz. Egia da idatzizkoan emotikonoek asko laguntzen dabela, baina hori ezin leiteke berbakaz eta zuzeneko alkarriketeagaz konparau.

2' 8"

IÑIGO ASTIZ Berriako kazetaria



Kontenplaziorako denbora hil egin dela esanez lagundu zuen Esther Ferrer artistak 2019an Donostian jarri zuen arte instalazioa. Bisitariak manipula zezakeen pendulu bat zintzilikatu zuen sabaitik, eta, azaldu zuenez, ziur zekien hura bultzatzen zuen inor ez zela hura nola gelditzen zen ikusi arte geratuko.

2019an Kirmen Uribek ere ideia hori zerabilen buruan *17 segundo* liburuari titulua jartzerakoan. Bataz beste, denbora hori eskaintzen baitiote bisitariak New Yorkeko Metropolitan museoko artelan bakoitza begiratzeari.

Gorka Urbizuren *Hasiera bat* diskoa entzun bitartean oroitu naiz bi aipamenekin. Urbizuk ere 2019ean Berri Txarrak desegin, eta, orain, aurrerapen kanturik gabe, bideoklipik gabe, eta ia-ia sorpresaz, osorik jarri duelako bakarkako diskoa entzungai. Hamar kanta, elkarrekin, musika singlez single entzuten den sasoiari.

Baina tematia da errealtatea, eta diskoak plataforma digital batean kantuz kantu izan dituen entzunaldiak dira horren froga. 143.080 ditu lehenak, eta beherantz gero. 135.200; 128.582; 126.606; 125.903; 112.570; 111.681; 103.882; 94.285 eta 94.001.

Bide batez, sareak bi minutu eta zortzi segundo kalkulatu dizkizu testu hau (osorik) irakurtzeko.

Puntua eta kontrapuntua **Kuadrillak**

Sektak, bai ala ez?



*Lagunak omen dira
denetan onenak,
Familia ez bezala
hautatzen direnak.
Halako batzuk batu
ta horra problemak:
kuadrilla uniforme,
itxi ta epelak,
sekta masoi kutre bat
ematen dutenak!*

**ARITZ
LANDEJA
TERCEÑO**
Getxo

*Sekta masoi kutreari
Aritz zenbat "lore",
baina baita badira
ugari kolore.
Hazi ta hezi elkarrekin
penak ta umore,
babes lekua gizartean
txertatzeko suabe;
zer egingo genuke
kuadrillarik gabe?*

**GALDER
BILBAO MARTINEZ
TXAPI**
Udondo



Idurre Erauzkin Bilbao Musikaria

«Pertsona baten ilusioak herria batzea lortu du»



Dantzori, Trabudu Dantzari Taldearen inauterietako ikuskizun magikoa, ez zen gauza bera izango Idurre Erauzkinek sortutako abestirik gabe.

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANDER ZARRAGA ▶

Jaiotzez bermeotarra eta bizilekuz gatikarra izan arren, Erandion etxean baino denbora gehiago pasatzen duela dio Erauzkinek. Besteak beste, trikitiko irakaslea da eta klaseak ematen ditu Bilboko eta Erandioko musika eskoletan, baita Altzagan eta Astrabuduan ere. Horri esker, Dantzoriko partaide asko ezagutzen ditu, bere ikasleak izan baitira: «Erandion oso gustura egoten naz, herri txikixe dalako eta jentie be oso jatorra dalako».

Dantzoriren ezinbesteko partaide ere bada Erauzkin, berak osatu baitzituen ikuskizuneko kantak eta trikitia jotzen aritzen baita emanaldietan. Trabudu Dantzari Taldeko egungo presidente eta Dantzori ikuskizunaren asmatzaile Juan Miguel Luquek eta berak aspalditik eza-


gutzen dute elkar, bere ikaslea ere izan baitzen «duela hainbat urte».

Gogoratu duenez, Erandion ez zegoen inauteri edo horrelako ospakizun berezirik, beraz, zerbait propioa egiteko grinatik sortu zuen Luquek ikuskizuna: «Pertsona bakar baten ilusiotik sortu zan dana, ilusio hori askoren ametsa egin zalako eta amets horrek herria lotzea lortu ebalako».

Dioenez, sormen-prozesuan Astrabuduko hainbat elementu hartu eta horiek nahastetik sortu zen Dantzori, hala nola harri bolkanikoak, padura, hegaztiak, kutsadura eta euskara. «Prozesu horretan, Luquek doinu batzuk asmatu, grabata bidali eta dekoguzen musikariak eta baliabideak kontutan hartuta Dantzoriko musika sortu gendun», gogoratu du musikariak.

Behin abestiak osatuta, denen artean bakoitzari dagoen koreografia ere osatu zutenak: «Ez da betiko zintza-dantza, ezta arku-dantza bez; arku edo zinta erabilita egiten diren dantzak baizik». Horrez gain, mozorroak egiteko lana ere apartekoa izan dela azpimarratu du. ◀

1836ko Gabon Gauda: Lutxanako bataila





Korneta-jole baten hutsegiteak salbatu zituen 1836ko Gabon Gauean galdua ziruditen bataila eta hiri bat. Garaipen horrek Lehen Gerra Karlistaren bilakaera baldintzatu bazuen ere, ez zuen anaien arteko guda odoltsu hura geldiarazi, ezta liberalen eta karlisten arteko hurrengo gerra biak eragotzi ere. Ekaitz baten erdian jazo zen Lutxanako batailaz ari gara.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA**

IRUDIAK: **ZUMALAKARREGI MUSEOA** ▶

Fernando VII.a Erregea, «desiratua» batzuentzat, «azpisugea» besteentzat, 1833ko irailan hil zen, eta herentzia gisa oinordeko biren arteko guda odoltsu bat utzi zuen: batetik, Isabel II.a babesten zuten liberalak eta, bestetik, Carlos Maria Isidro Borboikoaren eta erregimen absolutistaren aldeko matxinatuak. Selektibitatea egin dutenentzako ezagunak izango dira izen horiek, eta anarkonikoak iruditu arren, gertaera horiek Euskal Herriko historia baldintzatu zuten ia gure egunera arte, gizarte eta ekonomia eredu bi kontrajartzen baitzizuten. Ez zen gatazka dinastiko soil bat izan, gizarte-eredu biren arteko guda odoltsua baizik.

Kontua da hiru urteko odoluste zoroaren ostean, 1836ko udagoienean, karlisten obusek hilabete bi zeramatzatela Bilbon erortzen. Daborduko, Bizkaiko hiriburua hirigune garrantzitsua zen, portu gisa eta finantza-, merkataritza- eta industria-arloan zuen garrantziagatik. Matxinatu karlistek Euskal Herriko landa-eremu ia guztia kontrolatzen zuten, baina hiribururik ez, eta nazioarteko babes eta diru-sarrerak bermatuko zizkien portu estrategiko baten berebiziko beharra zuten, beraz, Bilbo hartzeak garrantzia handia zuen beraientzat.

Lehen saiakera 1835ean egin zuten, Tomas Zumalakarregi jeneralaren agindupean. «Osaba Tomas» jeneral ormaiztegiarra (Gipuzkoa) Begoñako basilikaren inguruan eraso zuzentzen zegoela, belaunean zauritu zuten ekainean. Zauria larria izan ez arren, egun batzuetara hil zen, Zegaman (Gipuzkoa), sasi-mediku eta petrikilo batzuen eskuetan. Karlistentzat kolpe lazgarria izan zen haien buruzagi preziatua galtzea, eta handik gutxira, Gaztelatik bidalitako errefortzuei esker, isaldarrek setioa altxatzea lortu zuten. Baina Bilbo ez zen karlisten mehatxutik libre geratuko

Hurrengo urtean, matxinatuek berriz ere egin zioten eraso Bizkaiko hiriburuari. Nazario Eguia jeneralaren agindupean, karlistek Bilbo bereganatzeko bigarren saiakerako lehen kanonikada 1836ko urriaren 23ean jo zuten. Erasotzaileek laster



Setiatzaileak izan arren, karlistek beti izan zituzten Bilboko defendatzaileek baino kanoi gutxiago. ZUMALAKARREGI MUSEOA

harrapatu zituzten hiriburuaren inguruko gotorleku eta gune estrategikoenak, eta harrasian zuloa egin eta sartzekotan ere egon ziren, baina Evaristo San Miguel jeneralaren garnizioak atzera eginarazi zituzten.

Bilbotarren zoritxarrerako, setioa luzatu egin zen, eta gosea eta gaixotasunak bonbak baino hilgarriagoak hasi ziren izaten: jatekoa gero eta eskasagoa zen; katuak desagertu ziren kaleetatik; eta kolera kasuak ere azaltzen hasi ziren. Hasieran, setiatuek Britainiar Legio Laguntzailearen babesa jaso zuten itsasadarretik, baina Eguiak txalupe egindako zubi batez bidea itxi zien. Aurreko urtean gertatu zen bezala, bilbotarrek kanpoko laguntza jasotzeko itxaropena zuten setioa altxatzeko, baina Baldomero Espartero jenerala ez zen azaroaren amaierara arte heldu Portugalera. Hil horretako 27an, 30ean eta abenduaren 12an, setioa altxatzeko ahaleginak egin zituen, baina ondo gotortutako karlistek eraso guztiak zapuztu zituzten. Bilbo edozein unetan erori zitekeela zirudien.

BATAILAREN EGUNA. Abenduaren 19an, britaniar armadako itsasontzien laguntzari esker, isabeldarrek tropak, zaldiak eta kanoiak pasatu zituzten Areetara, eta txalupakaz egindako zubi bat ere eraiki zuten. Jarraian, Galindo ibaia zeharkatu eta posizioak hartu

«Gau glazial baten ilunpetan ari ziren borrokan, elurra zapaltzen, txingorrak astintzen, hezurretaraino zulatzen... Hildakoak elur gainean erorita, zaurituak haitz eta putzuetan arrastaka, inork lagundu gabe; bizirik zeudenek ia itsumustuka eta katuka erasotzen zioten zubiari, eta zalantzarik gabe, arriskua ez ikusteagatik, eraso eta menderatu egin zuten...»


BENITO PEREZ GALDOS
LUCHANA. EPISODIOS NACIONALES

zituzten Lutxanaren aurrean eta Erandioko hainbat puntutan, tartean, Asua ibaiaren eskuinaldean. Helburua zen suntsituta zegoen Lutxanako zubia hartzea eta, hortik, Cabras, San Pablo eta Banderas mendiei eraso egitea.

Adrian Schubert hispanistak *Espartero, el Pacificador* lanean honela deskribatu zuen bataila jazo zen abenduaren 24 hura: «Eguraldia ikaragarria zen: goizeko euria elurbusti bilakatu zen, eta gero, arratsaldeko erorikoan, eraso hastera zihoala, Kanadako elur ekaitz baten proportzioak hartu zituen».

Egun horretan, Espartero jeneralak ez zituen bere tropak gidatu, bera ohean kolikoak jota geratu baitzen Jose Maria Jado bilbotar aberatsaren Erandioko jauregitxoan. Oraa jeneralak gidatu zuen bere ordeztasuna.

Goizetik, laguntzera joan ziren britaniar itsas-armadako bi itsasontziek eta ezker aldean jarritako kanoi liberalek Lutxanako defentsak bonbardatu zituzten egun osoan zehar. Tropen eraso 16:00ak inguruan hasi zen, txingorra eta elurra botatzen ari zela, zortzi soldadu-konpainiak 30 bat txalupetan itsasadarra zeharkatu eta Lutxanan lurreratu zirenean. Helburua zen Lutxanako gotorlekuak eta Asuaren gaineko zubia hartzea, horrela zubia berreraiki eta Asuako beste aldean zeuden tropek gurutzatu zezaten. Ekaitzaren eraginez, karlistek ez zuten etsaia hur-



1. Abenduaren 23an, itsasadarra zeharkatzea lortu ostean, isabeldarrak Asua ibaiaren ezkerrean kokatzen dira, baina zubia suntsituta dago.
2. Abenduaren 24ko goizaldean, Lutxana Barakaldoko eta barku britainiarretako kanoiek karlisten gotorlekuak bonbardatzen dituzte.
3. 16:00etan, ekaitza baliatuta, soldadu liberalek itsasadarra zeharkatu eta Erandioko Lutxanan lurreratzen dira. Karlistek atzera egiten dute.
4. 23:00ak inguruan, isabeldarrek ezin dituzte karlistak San Pabloba eta Banderas mendietatik atera. Espartero ohetik atera eta eraso gidatzen du.
5. 01:00ak inguruan, korneta-joleak okerreko agindua eman eta bustita eta leher eginda dauden soldaduek azken eraso egiten dute.
6. 04:00etan, tropa isabeldarrek karlisten postuak hartzen dituzte eta galtzaileek Bilboko setioari amaiera ematen diote.

Kanoi liberalak karlisten gotorlekuak bonbardatzen itsasadarraren ezkerrean. WIKIMEDIA

biltzen ikusi gainean izan arte, eta oso gutxi ziren ustekabeen lehorreratu ziren hainbeste soldaduren aurka. Defentsa sutsua egin zuten arren, azkenean, atzera egin eta liberalek Cabras mendia bereganatzea lortu zuten. Isabeldarrek mendian gora jarraitu zuten, eta Banderas eta San Pabloba mendietako gotorlekuei baionetakaz eraso egin zieten. Liberalek askoz gehiago izan arren, defendatzaileak tinko mantendu ziren eta, elurra erortzen ari zen bitartean, aurrez aurreko borroka odoltsuak eman ziren, baina ez bata ez besteak ez zuen etsaia menderatzea lortu.

Isabeldarren egoera oso larria zen, etsaiez betetako mendiez inguratuta zeuden, eta atzealdean zuten ibai ezin zuten zeharkatu, denboraleak itsasadarreko zubia suntsitu baitzuten; gainera, euriak borrokatzen jarraitzea ezinezkoa egiten zuen daborduko leher eginda zeuden soldaduentzako.

23:00ak aldera, Oraa jenerala Espartero-
rengana joan eta egoeraren larritasuna azaldu zion, ez aurrera ez atzera zebiltzalako, karlistak mendietako gotorlekuetatik ezin aterata. Horren aurrean, Espartero zaldi gainean jarri eta, mina gaudituz, borroka-lekura abiatu zen. Soldaduek jeneral heldu berria goretsi zuten, baina Esparterok une horretako erasoaldia eta Bilbo bera ere galdutzat eman zituen.

Garaiko kroniken arabera, une horretan,

6.000

baja inguru egon ziren batailan, alde bien hildakoen, zaurituen eta desagertutakoen artean.

250

hildako eta 2.000 zauritu inguru izan ziren Bilbon setiatuta zeuden herritarren eta defendatzaileen artean.

1840

urtean bukatu zen Lehen Karlistaldia. Alde bietako tropen artean 130.000 hildako inguru utzita, 1936ko gerraren antzeko kopurua. Horrez gain, errepresioaren eta gudak eragindako gaitzen eraginez, milaka izan ziren hildako zibilak.

tropen erreleboa egiten ari zirela, Oraa jeneralek korneta-jole bati gelditzeko agindua emateko eskatu zion, baina, horren ordez, soldaduek erasotzeko seinalea jo zuen, eta egoera penagarrian zeuden soldaduek, «automatik bezala», erasoari ekin zioten beste behin. Oraak ezpataz korneta dohakabea zeharkatu gura izan zuen une horretan, baina Esparterok, bere gizonen erreakzioa ikusita, besotik heldu eta aginduagaz jarraitzeko esan zion.

Karlisten egoera are okerragoa zen, ez baitzuten ia errefortzurik jaso eta muniziorik gabe baitzeuden. Ustekabeko eraso horren aurrean, soldaduek amore eman eta ihes egin zuten ofizialei jaramonik egin gabe, euren lefroetan nahasmena eraginez.

04:00etarako, liberalek Banderas mendia, haize-errota eta Artxandako etxeak hartu zituzten, karlistek setioa altxatu eta ihes egin zuten bitartean. Azkenik, 09:00etan, liberalek Bilbon sartu ziren garaile.

Porrota golpe latza izan zen kausa karlistarentzako; hala ere, Esparteroren geldotasunak denbora nahikoa eman zien berrosatzeko, eta gerra 1839ra arte luzatu zen Euskal Herrian, «Bergarako besarkada» bezala ezagutzen den hitzarmena sinatu zuten arte. Liberalek eta karlistek beste guda bi borrokatu zituzten elkarren aurka, eta 1874an matxinetuek Bilbori eraso egin zioten beste behin. ◀

Getxo *Xake* horma-irudia

Aurkeztutako proposamen guztiak baztertu dituzte

Miren Larrea mural-lehiaketan aurkeztutako 16 proiektuak baztertu dituzte. Bigarren deialdia hasi dute, eta bost aukeren artean iritziak batuko dituzte.

Areetako metro-geltokiaren ondoko plazari izen popularra ematen dion *Xake* horma-irudiak zeresana eman du berriro ere. Inguruko hainbat herritar hori bere horretan mantentzea eskatu dute, baita hori berri ere; beste horrenbestek, gobernu-taldea tarteko, irudi berri bat jarri gura diote hormari, eta, horretarako, Miren Larrea mural-lehiaketa abiatu zuen. Bada, lehenengo deialdian 16 proiektu aurkeztu ziren, eta horietako batek ere ez du gainditu fase teknikoak eskatzen duen gutxieneko puntuazioa. Hala, aho batez, epaimahaiak erabaki du horiek guztiak baztertzea. Antzezaleak eta Garrobi Kultur Elkarteko kide bik osatu dute lehiaketaren epaimahaia, aipatutako higiezinaren jabekideen komunitatearen ordezkari den bizilagun batek eta Getxoko Kultur Etxeko zuzendaritzak eta teknikariak batera.

Egoera horren aurrean, bigarren deialdi bat ireki dute, maiatzaren 6ra arte, eta epaimahaiak bost proposamen aukeratuko ditu jasotako guztien artean; ondoren, horien inguruko herritarren iritziak jasotzeko konsul-



Areetako metro-geltokiaren ondoko plazari begira dago horma-irudia. HODEI TORRES

Proposamen berriak maiatzaren 6ra arte aurkeztu ahalko dira. Horien artean, bost aukeratu eta herritarren iritziak jasoko ditu epaimahaiak.

ta parte-hartzaile ez-loteslea jarriko dute martxan. Behin kontsulta amaituta, epaimahaiak erabakiko du zein obra garatuko duten orain dela lau hamarkada Jose Miguel Ibarretxe artista eta zinemagile getxoztarrak diseinatutako eta margotutako *Xake* horma-irudia ordezkatzeko. Deialdi berriari begira, hautatutako proiektuetako bat aukeratuz gero, gehienez 43.000 euro erabiliko dira lana egiteko, eta, proiektua gauzatu aurretik, Udalak ordainduko du fatxada konpontzea eta egokitzea. ◀

SAN

NIKOLAS

IKASTOLA

ikastolenekartea

MATRIKULA ZAITEZ!

EMAN IZENA >>> SANIKOLAS.EUS/ZATOZ

Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

94 430 54 78
ikastola@sanikolas.eus

[f](#) [i](#) [v](#)



Ezkerrean, Astrabuduan, 1970an; eskuman, Andra Marin, gaur egun.

Sei hamarkada euskal kultura hauspotzen, Getxotik mundura

Frankismoaren errepresio bortitzaren garai bete-betean jaio zen Itxas Argia Dantza Taldea, 1964an. Izen bereko elkartearen babespean sortu zuten, Andra Mari auzoan, Paulino Azkue dantza-maisuaren gidaritzapean. Taldeko kideek gogoratzen dutenez, garai hartan Zuazo tabernan entseatzen zuten, klandestinitatean, eta hasiera zaila izan zuten arren, 60 urteko ibilbide oparoa izan dute, euskal kultura eta dantzak hauspotzeko eta ezagutarazteko eragile bihurtuz.

Aurten, egindakoari errepassoa emateko eta etorkizunera begira jartzeko asmoz, haien 60. urteurrena ospatuko dute, eta aurreneko ekitaldia egingo dute otsailaren 23an, 19:00etatik aurrera, Bentan. Urtemugaren hasiera-emate horren ondoren, beste hainbat jarduera egingo dituzte hilabeteotan, hala nola dantzaldi berezi bat, sei hamarkadon ibilbidea batzen duen dokumentala eta kalejira erraldoi bat.

«Ez dugu ospakizun soil bat egin nahi. Urteurrena aukera paregabea ikusten dugu garai hauetan euskal dantzen munduak behar duen bultzada horretan gure alea jartzeko!», azaldu dute urteurreneko lan-taldeko kideek. Hala, horren aitzakiagaz, Itxas Argia dantza-taldekoek kide izandakoak eta oraindino direnak batuko dituzte, elkar ezagutu eta omentzeko.



60. urteurrena

Otsailaren 23an emango diote hasiera Itxas Argia Dantza Taldearen urteurrena ospatzeko ekitaldi sortari. 19:00etan jarri diote «Hasierako agurra» ekitaldiari hitzordua, Bentan, eta, horren ondoren, askotariko jarduerak egingo dituzte datozen hilabeteetan.

Era berean, Andra Mari auzoan euskal kulturaren eragile izan den talde horri ikusgarritasuna eman eta omenaldia egin gura diote, baita «hain zaugarria bihurtzen ari den» euskal dantzen munduak bizirauteko eta zaharberritzeko duen boterea goraiatu ere.

60 URTE OPARO. 1964an sortu bazen ere, hurrengo urtera arte itxaron behar izan zuten lehendabiziko ekitaldi publikoa egiteko, sanisidroetan; ostean, X. Paella Lehiaketan dantzatu zuten ere eta, orduetik, urterik urtera propioa egin dute ekitaldi horietan. Taldearen hastapenak oso zailak izan ziren, ez baitzeukaten ez lokal propiorik ez materiala eta arropak erosteko dirurik. Alabaina, 1968an, taldeak txistularia lortu zuen – Jesus Mari Mayor *Txus*– eta, horregaz batera, presentzia indartu ere. 1970ean, elkarteak lokala erosi zuen Iturribide kalean, eta bertan bateratu zituen ekintza guztiak. 90eko hamarkadarako, dantza-taldea guztiz errotuta zegoen, eta 1993erako, Euskal Herriko Dantzari Eguna antolatu zuen, urtero ospatzen jarraitzen dutena: «Garrantzi berezia du guretzat». 2006an, berriz, lokal berria estreinatu eta, geroztik, taldea asko hazi da eta askotariko dantzaldiak antolatu ditu, plaza xumeetatik hasita, nazioarteko jaialdietara. ◀

Leioa Udalagaz harremanetan**Herritarrak eta Udala konektatzeko aplikazioa sortu dute Leioan**

Leioako Udalak LeioApp aplikazio berria jarri du martxan, leioaztarrek erakundeagaz «arin, erraz eta eroso» harremanetan jartzeko aukera izan dezaten, edozein gailu mugikorren bidez. Horren helburua da herritarrek hobekuntza behar dutela uste duten guztia berehala eta modu zuzenean helarazi ahal izatea.

Leioako alkate Iban Rodriguez Etxebarriak adierazi duenez, herritarren eta Udalen arteko komunikazio-kanal berri bat ahalbidetzea da helburua, herritarrek egoki eta beharrezkotzat jotzen dituzten gorabeherak «berehala eta zuzenean» helarazi ahal izan ditzaten. «Eguneroko eskaerekin bat egin nahi dugu, gure kale, plaza edo parkeetatik paseatzen duenak eta zerbaitek funtzionatzen ez duela, egoera onean ez dagoela edo hobetu daitekeela ikusten duenak modu errazean jakinaraztea», azaldu du alkateak.

Aplikazioa Android zein iOS sistema eragiletarako garatu dute; aplikazioa erabili gura den gailuan deskargatu besterik ez da egin behar, eta gorde edo gogoratu behar den erabiltzaile eta pasahitz bategaz erregistratu.

TOPAKETAK ALKATEAGAZ. Agintaldi Planeko egitasmoak jarraituz, *Alkatearekin partekatzen* izeneko herritarren parte-hartze eta entzute aktiborako programa abiatu du alkateak, leioaztarrek elkartu eta herriko beharrak, lehentasunak eta Leioa hobetzeko ideiak «bertatik bertara» ezagutzeko. Guztira, alkateak bederatzi topaketa egingo ditu auzo ezberdinetako biztanleakaz. Bilerak eguaztetenan izango dira, 18:30ean. ◀

Leioa Itsasadarreko bulebarra**Udaberrirako bukatuko dute bulebarraren lehen fasea Lamiakon**

Ekologistak Martxan taldeak ohartarazi du hezegunea berreskuratzea atzerazina dela, baina Aldundiaren proiektuak ez duela hori berreskuratzeko asmorik.



Bulebarra itsadarraren eta paduraren artean dago, errepede zaharren ibilbidean. BFA

Aldi batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak iragarri du Getxo eta Bilbo arteko oinezkoentzako eta bizikletentzako bulebarraren lehen fasea udaberriaren bueltan amaitu eta Erandio eta Getxo arteko Lamiako hezegunearen pareko ibilbidea irekiko dutela. Aldiz, bigarren fasean, Alzaga eta Elorrieta arteko tartea egingo dute Erandion, eta 2025eko maiatzean bukatzea aurreikusiko dute.

Bestetik, aurreko otsailaren 2an, Hezeguneen Munduko Egunean, Ekologistak Martxan taldeak adierazi zuen «kezka» jarraitzen dituztela Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarritako hainbat proiektu, tartean, Bilboko itsasadarren eskuinaldeko bidegorriaren egitasmoa; izan ere, publiko egindako xehetasunen arabera, oraindino ez dago Lamiako hezegunea leheneratzeko planik zehaztuta, «hori berreskuratzea atzerazina izan arren». ◀

MATRIKULA ZABALIK

Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64



BETIKO

IKASTOLA

www.betikoikastola.eus




ikastola

ikastolenkartea

Sopela Garraio Partzuergoari atxikitu

Bilboko metroaren maiztasuna areagotu gura dute herrian

Sopelako geltokian 20 minuturo igarotzen den egungo maiztasuna ez dator bat Larrabasterrako geltokiko 10 minutuko maiztasun arinenagaz.



Sopelako biztanleria etengabe hazi da 80ko hamarkadatik. SOPELAKO UDALA

Urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran, Sopelako Udalak urrats erabakigarria eman zuen herrian mugikortasuna hobetzeko, Bizkaiko Garraio Partzuergoari atxikitzeko eskaera adostuz. Mugimendu estrategiko hori Partzuergoaren Estatutuetako 49. eta 50. artikuluen ara-

bera egiten da, eta funtsezkoa da hura integratzea Sopelako geltokian metro-maiztasuna handitzea eskatzeko eta, horrela, herriko herritarrentzako garraio-zerbitzuaren hobekuntza sustatzeko. Izan ere, 80ko hamarkadaren amaieratik, Sopelako biztanleria etengabe hazi da eta, ondorioz, beharrak handitu. ◀

Sopela Hezkuntza

Gurasoek eta ikasleek errekurtsua kentzeko eskatu diote SAARI



Elkarretaratzea konponbide bat exijitzeko.

Sopelako Auzo Alternatiba alderdiak aurkeztutako errekurtsuak Iberre institutua hedatzeko proiektua *de facto* geldiarazi duela salatu dute Zipiriñe eta Sopela BHI ikastetxeetako gurasoen elkar- teek. Azaldu dutenez, Eusko Jaurlaritzak epe ertain-luzean proposatzen dituen hautabideak alde batera utzita, arazo horri «berehala» aurre egingo dioten konponbideak behar dituzte: «Masifikatu gabeko kalitatezko instalazioez gozatu ahal izatea beharrezkoa da, liburutegiak, gela espezializatuak edo aisialdirako guneak bezalako baliabideak». Gainera, Sopela BHIin DBH ikasi gura duten ikasle guztiei lekua egitea eta udalerrian Batxilergoa ikasi ahal izatearen beharra azpimarratu dute.

Nabarmendu dutenez, toki gehiago izateko egun duten irtenbide errealista bakarra Abaro sektoreko alboko lursaila erabiltzea da. Hori dela eta, beste behin eskatu diote Sopelako Auzo Alternatiba alderdi politikoari Iberreko institutua hedatzeko eremuak okupatzeko errekurtsua ken dezaten, horiek, Hezkuntza Sailaren esku utzi eta zentroak eraikitzeko lanak hasteko. ◀



Otsailaren
7tik 23ra

INTERESA IZANEZ GERO,
BETE HURRENGO
GALDETEGIA ETA
HARREMANETAN
JARRIKO GARA ZUEKIN.



Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa
MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Gatzarriñe, 47
SOPELA
info@anderdeuna.eus
www.anderdeuna.eus
94 676 02 66

**ander
deuna**
IKASTOLA
Zatoz gu
ezagutzera!

Erandio Astrabuduako Auzo Elkarteak

Astrabuduan TAO sistema ez ezartzeko alternatibak proposatu dituzte

Sortu berri den Astrabuduako Auzo Elkarteak hainbat auzotarren kezak batu ditu, eta daborduko bi eskari egin dizkio Erandioko Udalari. Batetik, oinezkoen sarbideetan argiteria publikoa eta egoera orokorra hobeto dezala eskatu diote, eta konkretuki metro-geralekuaren inguruko segurtasunaren eta kale-zurrutaren inguruan neurriak hartzea premiazkoa dela ohartarazi diote.

Auto asko, aparkaleku gutxi Elkartekoek argudiatu dutenez, 4.086 aparkaleku daude ia 5.000 ibilgailurentzat; lehenik hori konpontzeko eskatu dute.

Horrez gain, Udalak TAO sistema ezartzeko asmoa iragarri duela eta, eskatu diote horrelako neurririk hartu aurretik bestelako konponbideak bila ditzatela; izan ere, auzoaren arazoa aparkalekuak baino askoz ibilgailu gehiago dagoela diote. «Ez gaude TAO ezartzearen aurka, baina uste dugu ez litzatekeela lehenengo neurria izan behar-ko», azaldu du Marco Antonio Duran auzo-elkarteko kideak. ◀

Erandio Kiroldegia

Astrabuduko kiroldegian fitness areto berria ireki dute

Daborduko erabilgarri dago Astrabuduko kiroldegiko fitness areto berria. Bertako makinak berritzeagaz batera, Udalak ariketa kardiobaskularra eta muskulaziokoa egiteko tresna aproposak jarri ditu. Azpimarratu dutenez, «erabiltzaileek azken belaunaldiko ekipamendua izango dute datozen lau urteetarako»; izan ere, epe horretarako sinatu dute kontratu berria, eta horri esker makinak mantentze-lanak, laguntza teknikoak, eta entrenamenduak kudeatzeko softwarea ere eskainiko ahalko dute.

Horrelako aldaketa esanguratsua izango dituen hurrengo kiroldegia Altzagakoa izango da, otsailaren 7an berrikuntza-lanetarako itxi baitute bertako gimnasioa. ◀



Gure! jaialdia egin dute, bigarrenez

Tartanga LHIIko ikasleek bigarren urtez hainbat jarduera soziokulturaleragaz bete zituzten Altzagako kaleak otsailaren 2an eta 3an. Hala, bariku-zapatu horretan, hainbat herritar hurbildu ziren giro onaz eta jaialdiak eskaintzen zituen askotariko ekintzez gozatzera.

instagram.com/oso_algorta/
facebook.com/OSOalgorta

ALGORTAKO ETORBIDEA, 59
osoalgorta@gmail.com

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

Barrika XV. Tostada Lehiaketa

Tostadarik onenaren bila arituko dira barrikoztarrak

Lehiaketa otsailaren 13an izango da, martitzenean. Hala ere, aurretik, umeez azkenburuko hori prestatzen ikasteko tostada-tailerra egingo dute, hilaren 11n, domekan.

Inauteriakaz batera, Barriak tostadarik gozoena bilatuko du, urteroko lehiaketan. Aurtengoa hamabosgarren edizioa izango da eta, ohi legez, parte-hartzaileek 12 tostada aurkeztu behar izango dituzte, barrako – azalagaz edo azalik gabe–, moldeko edo brioche ogizkoak, otsailaren 13an. Tostadak udaletzeko etxabeaz aurkeztu beharko dira, 18:00etatik 18:30era. Epaimahaiak azkenburuko horien zaporea, testura eta aurkezpena –ezin da apaintzarik jarri– baloratuko dute eta, irabazleek, hiru bonu jasoko dituzte herriko dendetan kontsumitzeko. Parte hartzeko, izena eman beharko da udal-liburutegian, otsailaren 12ko 20:00ak baino lehen. Une ho-

rretan, tostadak aurkezteko erretilu bat jasoko dute herritarrek.

Lehiaketa adinez nagusientzako izango da, baina txikitxoentzako ohitura honetaz gozatzeko aukera ere egongo da egunotan. Izan ere, otsailaren 11n, 6 eta 12 urte arteko neska-mutilentzako tostada-tailerra egingo dute liburutegian, 12:00etatik 13:30era. Plazak mugatuta egongo dira eta, hori dela eta, otsailaren 9a baino lehen eman beharko da izena, liburutegian bertan.

Inauterien bueltako ohitura da hori guztia eta, nola ez, aratustetan txonbo egingo dute barrikoztarrak ere. Hala, zapatuan, otsailaren 10ean, hainbat jarduera egongo dira gozagai Ander Deuna aretoan, 18:00etatik aurrera. ◀

Barrika Errepidea

Txintxilandia eta Zearreta artean aurreratzea, debekatuta



Aurreratzea debekatuta dagoen tartea. BU

Barrikako Udalaren Hirigintza Sailak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi zion aukera egon zitekeela aurreratzea debekatzeko Txintxilandia eta Zearreta biribilguneen artean, hau da, Barriako 3114 Foru Errepidearen zati batean. Proposamenaren helburua erabiltzaile eta bizilagunei segurtasun handiagoa ematea zen. Eskiera joan den azaroaren 8an egin zuen eta, hil bereko 23an, Aldundiak baiezkota eman zion horri. Hala, inguruan seinale bertikal eta horizontal berriak jartzea baimendu zuen, eta daborduko horiek ikusgai daude errepidearen tarte horretan. Hartara, Udalak ohartarazi du daborduko neurria indarrean dagoela. ◀

Berango Kiroldegia

Padel pistak eta ikastaro berriak, martxan daborduko

Udalerriko kirol eskaintza areagotzeko asmoz, Berangoko kiroldegiko padelpista berri biak eta askotariko erabilerako gela bi inauguratu zituzten joan den otsailaren 1ean, eguenean. Azken gune bi horietan, herritarrek pilates, yoga eta spinning-a egin ahal izango dute; ikastaro horietan izena emateko epea iragan urtarrilaren 26an amaitu zen.

Berangoztarrek baldintza bereziak izango dituzte azpiegitura eta zerbitzu horiek erabili ahal izateko. Horretarako, baina, interesatuek, herrikoak izan zein ez, instalazioetara sartzeko eskaera bat egin beharko dute Santa Ana eta Berangoetako kultur etxeetan, eta gero aplikazio bat deskargatu. ◀



Ludoteka berria inauguratu dute!

Otsailaren 2an ireki zuten publikoki Icaza jauregiaren kotxetegian dagoen azpiegitura, eta bertan kokatuta egongo dira bai ludoteka bai anbigua. Lehenengoak 3-8 urteko umeei emango die zerbitzua, 16:00etatik 20:00etara.

Plentzia Memoria historikoa**Errepresio frankistako testigantzak batuko dituzte Plentzian**

Plentziako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak hitzarmena sinatu dute 1936 eta 1978 bitartean erregimen frankistak errepresaliatutako senide edo pertsonen edo garai horretako giza eskubideen urraketen inguruko informazioa eman edo jaso ahal izateko.

Zeregin horretarako, Topalekuan bulego bat ahalbidetuko dute Billabasoena udal-erakinean, Goienakle kaleko 25 zenbakian. Bulegoa otsailaren 19tik martxoaren 11ra egongo da zabalik, astelehenetan, interesa duten herritar guztiari arreta emateko, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00ak arte. Horrez gain, arduradunek iragarri dute bertaratu ezin direnentzako 943 466 142 telefonoa eta memoria@aranzadi.eus helbidea ere ahalbidetu dituztela, edozein zalantza argitzeko.

BIKTIMA GUZTIEN MEMORIA EGUNA. Plentziako Udalak 2023-2027 agintaldirako aurkeztutako gobernu-planearan egitasmo honen berri eman zuen eta udalerriko garai horretako memoria ikertzeagaz batera, ekainaren 14a instituzionalizatzeko asmoa ere adierazi zuen, «biktima guztien eguna izan dadin». ◀

Gorliz Segurtasun falta**Hondartzako pasealekuko zubia itxi dute, segurtasunagatik**

Hondartzako pasealekuko zubia itxi behar izan du Gorlizko Udalak, horren egitura egoera txarrean zegoela-eta. Azaldu duenez, egurra usteldu egin da hondarraren eta kresalaren eraginez. Hala, oholak ez daude segurtasunez eutsita. Zubiaren egoeraren ondorioz, udal-arduradunek erabaki dute hori ixtea eta horren paraleloan doan bide bat egokitzea, «bihurgune gehiagorekin baina seguruagoa, herritarrek erabiltzeko prest dagoena». Udalak azaldu duenaren arabera, arazoa 2021etik ari dira kudeatzen Espainiako Kosta Zuzendaritza Nagusiagaz eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailagaz. Zubia etengabe eratzen ari den duna baten gainetik igarotzen da, eta babestutako espezieak bizi dira bertan. ◀

Plentzia Prozesu parte-hartzaileak**Parkeen sarea diseinatu eta udal-ekipamenduak berrantolatuko dituzte**

Plentziako Udalak prozesu parte-hartzaile bi abiatu ditu, herritarrek batera udal-ekipamenduak eta parkeen sarea berregituratzeko, beharrei irtenbide kolektiboa emateko.

Aitor Garagarza Plentziako alkateak adierazi duenez, epe luzerako egitasmoa abiatu dute Udalean, eta horren emaitzak HAPON islatzea ere aurreikusi dute baita ere. Batetik, Udalaren jabetzakoak diren eraikinen eta azpiegituren erabilera kultur eta kirol-taldeen beharretara egokitu gura dituzte. Horretarako, online galdetegi bat egiten ari dira gaur egun, herritarrek eta elkarteak baitira horien beharrak eta gabeziak hobeto ezagutzen dituztenak, udal-iturrien iritziz. Horrez gain, herritarrek elkarteakaz bilerak ere egingo dituzte, eta herritar guztientzako topaketa irekiak ere hitzartuko dituztela iragarri dute.

Era berean, alkateak adierazi du plentziarrek hainbat kexa helarazi dizkietela parkeen egoeraren inguruan, eta, beraz, gune horiek aztertu eta berridiseinatzeko beste prozesu parte-hartzaile bat abiatu dute, herritar boluntarioek osatutako talde eragile baten bitartez egituratu dena. Hasteko, diagnosia egingo dute, udalerriri osoko parkeak sare gisa hartuz. Horren ostean, datoren apirilean, diseinu-fasea abiatuko dute.

Horregaz guztiagaz, alkateak adierazi du herritarrengan esperientzia positiboak sortu gura dituztela parte-hartzearen inguruan, agintaldiko zehar-lerroetako bat izango baitira. ◀

Gorliz Ortuarteko parkea**Haurrentzako parke berria dago Gorlizen**

Gorlizko Udalak 65.000 euro baino gehiago bideratu ditu aisialdirako eta familien gozamenarako bideratutako Ortuarteko parke berria eraikitzeko. Eduki ludiko handiko jolasez hornituta dago eta irudimenerako pizgarriak diren askotariko jokoak ditu. Hala, 485 metro koadroko azalera du guztira eta erdia alde aurretik instalatutako estalki batek babesten du. Proiektuan aurreikusita zegoen bezala, aisialdirako eremu berriaren zati handi bat estalkian bertan baneratu dute, estetika kaltetu gabe eta joko-intentsitate desberdineko bi guneetan banatuta eremua. Diseinuak



Itsas mundua islatu dute diseinuan.

itsas mundua erreproduzitzea du helburu, eta, horregatik, itsasoko olatuak imitatzen dituzten erliebeak sortu dituzte. ◀

Urduliz Genero-ikuspegitik landutako tailerra

Autoestimua artearen bidez landuko dute Urdulizen

16 urtetik gorako emakumeentzat bideratuta dagoen saioa da. Helburua da artearen bidez norberaren zaintza eta autoestimua erdigunean jartzeko ariketa egitea.



Gehienez 15 parte-hartzaile onartuko dituzte saioan.

Generoaren ikuspegitik eta dinamika artistikoak erabiliz, autoestimua eta autozaintza lantzeko saioa egingo dute Urdulizko kultur etxean otsailaren 15ean, eguenean, arrastiko 18:00etatik 20:00etara. Izenematea otsailaren 12a baino lehenago bidali beharko dute interesa duten pertsonak, hurrengo helbidera: berdintasunerakobidean@urduliz.eus.

Hala, artearen bidez hausnartzeko, eztabaidatzeko eta elkar ezagu-

tzeko gune segurua eraiki gura dute Berdintasunerako Bidea proiektu parte-hartzailearen barnean.

Gehienez, 15 parte-hartzaile onartuko dituzte saioan, eta emakume guztiek 16 urte baino gehiago izan beharko dituzte. Tailerra euskaraz eta gaztelaniaz izango da. Gainera, antolatzaileek adierazi dute haurrak gainbegiratzeko zerbitzua egongo dela, aldez aurretik eskatuta, otsailaren 8ra arte, helbide honetan: berdintasuna@urduliz.eus. ◀

Urduliz Notizia digitalak

Udalerriko *Gaur* herriko aldizkaria digitalizatu du Udalak

Urdulizko Udalak jakinarazi du udalerriko *Gaur* aldizkaria daborduko ikusgai dagoela formatu digitalean. Udalaren esanetan, bizilagunentzako gune irekia izatea gura du eta bertan herritarrek Urdulizko berriak partekatu ahal izango dituzte. Hala, Udalak herritarrak gonbidatzen ditu gura dituzten informazio eta albisteak aldizkarian argitaratzera, betiere izena, telefonoa eta posta elektronikoa zehaztuta. Gainera, aldizkari digitaleko azken berriak posta elektronikoa jasotzeko aukera txertatu dute, interesa duten lagunek zuzenean azkenengo notizien berri lehenbailehen izateko. Halaber, aldizkaria PDF formatuan deskargatzeko aukera ere eskainiko dute. *Gaur* daborduko ikusgai dago Udalaren webgunean. ◀

Urduliz Berriz ere irekita

Urdulizko Nagusien Etxeko taberna martxan jarri dute

Eraikin berria daborduko erabilgarri dago udalerriko herritar guztientzat, Urdulizko Aita Gotzon 18. kalean kokatuta. Urtarrilaren 25ean inauguratu zuten gunea herritarrentzako festa bat egaz: erretiratuek euren tarte izan zuten 18:30etik 19:30era eta gainontzeko bizilagunak beranduago batu ziren, 21:00ak arte. Hala, pintxoak eta animazioa egon ziren Beti-lagunak abesbatzaren eskutik. ◀

**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

AINGARA
BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

Denda berria!
Ibaiondo, 13 48930 Erromo · GETXO

944 038 953 • www.bordadosaingara.com

Urbe Kosta Pertsuazioa**Storytelling teknikak ikasteko saioa egingo dute otsailaren 24an**

Saio hau Urbe Kostako edozein gazterentzako zuzenduta dago eta Beran-goko Gazte Laben egingo dute. Hala, hitz egiten konbentzitzeko egiturak ikasiko dituzte interesdunek, gazteek euren aurkezpenetan segurtasunez eta dinamikotasuna aintzat hartuz berba egiten ikas dezaten. Antolatzaileen esanetan, mezu sendoak, argiak eta sinesgarriak sortuko dituzte *storytelling* teknikak baliatuz. Hala, otsailaren 24an, goizeko 10:00etatik 12:00etara, parte-hartzaileek ingurune seguru eta atsegin batean praktikatzeko aukera izango dute.

Tailerra Urbe Kostako gazteen emantzipazioa bultzatzeko proiektuaren barnean kokatzen da. Programa horren bidez, gazteen emantzipazio-prozesuan protagonista diren lau eremuak lantzen dituzte: etxebizitza, lana, parte-hartzea eta orientazioa, *mentoring* eta laguntza. ◀

Lemoiz Herritarrentzako gune berriak**Lemoizko Udalak ikasgela bat prestatu du Andrakan**

Erreserba egiten duen pertsona arduratuko da erabilitako lokala behar bezala jasotzeaz, ordenatzeaz eta materialetan aldaketarik ez eragiteaz.

Lemoizko Andraka auzoan dagoen kultur lokalean ikasteko gela bat prestatu du Udalak, eta herritarrek erabili ahal izango dute eskaera egin eta gero. Horretan, ezin izango da egin ikasketak ez diren beste ekintzarik, eta eskaerak idatziz egin beharko dira udaletxean (goizeko ordutegian) edo Armintzako kultur etxean (arrastiko ordutegian), gutxienez astebete lehenago. Honako infor-

mazio hau adierazi beharko dute interesa duten lagunek: pertsona eskatzailea eta erreserbatu nahi den lokala, kasu honetan, Andrako ikasgela. Eskaera egiten den momentutik eta uztailaren 15era arte pertsonak ikasgelara sartzeko baimena izango du eta bertara sartzeko txartela emango zaio. Bertan, isilik, zaratarik gabe eta beste kideek ikasi ahal izateko jarrera egokiak izatea derrigorrezkoa izango da. ◀

LOR<LDIA FESTIBALA**10. EDIZIOA** Martxoaren 1etik 23ra
MUNDUARI BEGIRATZEKO MODU BAT

IRANTZU LEKUE | LEIRE BILBAO | NEREA ARRIEN | TOTI MARTINEZ DE LEZEA | GORKA HERMOSA
GARIKOITZ MENDIZABAL | JON SARASUA | JOSU MARTINEZ | AINARA LASA | AMAGOIA GURRUTXAGA | IDURRE ESKISABEL
LOREA AGIRRE | MIREN NARBAIZA | LIZAR BEGOÑA | JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL | ANE GEBARA | AITOR VINAGRET
METROKOADROKA | KIRMEN URIBE | MIKEL URDANGARIN | RAFA RUEDA | MIKEL VALVERDE | PATXO TELLERIA
BASABI | MIREN ARTETXE | ALAIA MARTIN | AMAIA AGIRRE | IBAN ZALDUA | IBIL BEDI | KATIXA AGIRRE | JOSU REKALDE
OIHANA IGUARAN | AMAIUR LULUAGA | JON MAIA | XAN AIREVGARTZEN GARAIO | JON CAÑAVERAS | ALPHAX
AMETS ORMAETXEA | LEIRE ETXEZARRETA | IRATI GUTIERREZ | GARAZI OTAEGI | MARIA LASA | ALAITZ ESKUDERO
ENERITZ AULESTIA | IRATI AGIRREAZKUENAGA | JANIRE ARRIZABALAGA | IZARO BILBAO | ARAITZ KATARAIN
IRAITZ LIZARRAGA | ALEJANDRA PEREZ | JANIRE ETXABE | JUANTXO ZEBERIO | MADDI ARANA
FRANCESCA DI NICOLA | IVAN CARMONA | EÑAUT ZUBIZARRÉTA | IÑIGO XALBADOR | PELLO RAMIREZ | NACHO SOTO
NEREA QUINCOCES | ADRIAN GARCIA DE LOS OJOS | IXIAR OREJA | AGURTZANE INTXAURRAGA | LA BASU

ESKURATU SARRERAK: LORALDIAFESTIBALA.EUS

Babesleak:



Ekoizlea:



Uribe Kosta Mecanerren auzia

Madrilera joateko asmoa dute Mecaner lantegiko beharginek

Urduzko Mecaner fabrikako langileek borrokan diraute euren lanpostuen defentsan: batzordeko kidea den Unai Mirasolainek adierazi duenez, hil honetarako hainbat mobilizazio esanguratsu dituzte aurreikusita: «Manifestaldi indartsu bat egingo dugu, eta pentsatuta dugu Madrilgo Kongresura joatea exijitzeko ez ematea diru publiko gehiago Stellantis enpresari ez badu Mecanerren itxiarekiko iritzia aldatzen». Hala, LAB eta ESK sindikatuek jakinarazi dute egindako lana eta gero, amore ez emateko erabakia hartu dutela, «oraindik badagoelako partida jokatzeko». Otsailerako bi proposamen eztabaidatuko dituzte langileen asanbladan: alde batetik, greba-egun bi eta asteroko mobilizazioak egitea, kontsulta-aldira arte irailaren 1ean hasi zuten prozesuari eta borrokari ekarpena egiteko, eta, bestetik, Urdulizen manifestazio handi bat antolatzea Mecanerren deslokalizazioaren eta itxieraren aurka. Aitzitik, ELA sindikatuak greba mugagabearen aldeko apustua egin gura du. Izan ere, enplegu erregulazio espedientearen kontsultaldia hasteko hilabete bat falta dela nabarmendu du eta, horregatik, «inoiz baino beharrezkoagoa» ikusten du greba mugagabearen neurria. ◀

Uribe Kosta Patinete elektrikoak

Daborduko ezin da patinete elektrikorik sartu garraio publikoan

Seguritasun-arrazoiengatik, otsailaren 1etik debekatuta dago Bizkaibuseko autobusetara patinete elektrikoak sartzea. Metro Bilbaok ere gauza bera ezarri zuen urtarrilaren 15ean, eta ordutik ezin da gailu horiekaz metroan sartu. Bizkaibuseko iturriek azaldu duteenez, azken hilabeteetan, «hainbat gorabehera» gertatu dira beste garraio publiko batzuetan, «hainbat eragin» izan dituztenak garraio-zerbitzua emateko orduan, eta horrek ekarri du autobus guztietara patinete elektrikoak sartzeko debekua. Bizkaibusek bat egingo du, modu horretan, beste garraio-sistema publiko batzuen neurriakaz, hala nola Renfe, Euskotren eta Metro Bilbao. ◀



Gure ikasleen ahotan



«Irakasleak bikainak dira eta eskura dauzkagun laborategiak ere bai»

ANDER CRESPO BERECIARTUA

Herria: Bilbo | **Adina:** 19

Ikasketak: Massachusetts-en batxilergoa.

Gradua: Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa.

Zaletasunak: Musika, gitarra jotzen dut eta abestiak idazten ditut eta kirola, txiki-txikitik eskiatzen dut.

Industriari aplikatutako ingeniari-tza fisikoa graduko 2. mailan zaudete: zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Fisikarekiko nuen zaletasuna Estatu Batuetan garatu zen. Izan ere, han egon nintzen garaian, neure teleskopioa eraikitzeo aukera izan nuen. Proiektu horrekin konturatu nintzen fisikari buruzko zatiez gain ingeniari-tzako zatiak (diseinua, fabrikazioa) ere asko gustatu zitzaizkidala, eta gustatzen zitzaizkidan arlo horiek ikusi nituen ingeniari-tza fisikoko graduan. Mondragonek erabiltzen duen eredu asko gustatu zitzaidan; nik neuk lehentasuna eman nahi diot modu aktiboan ikasteari, estudiantzearen gainera, eta uste dut Mondragon Unibertsitateko ereduak hori errazten duela. Gainera, oso interesgarria iruditzen zait enpresako praktikekin eskaintzen den prestakuntza duala.

Nolakoa izan da orain arte bizi izandako esperientzia?

Poz-pozik nago. Onartu behar dut ez dela karrera erraza, inondik inora, baina oso karrera polita da, eta gai ugari buruz asko ikasten ari naiz. Asko gustatzen zait ikustea nola orain gai naizen nire eguneroko edo naturako gauzek nola eta zergatik funtzionatzen duten jakiteko, eta, horrez gain, lortu ditudan oinarriek esker ondorioztatu dezakedan zergatik funtzionatzen duten fenomeno konplexuagoek. Hori guztia karrerako irakasle bikainek esker izan da, beren lanbidea gustuko duten eta arduraz diharduten irakasleak baitira, baita

daukagun laborategi bikainari esker ere, han barneratu baititzakegu ikasgelan irakatsitako kontzeptuak.

Zer metodologia erabiltzen duzue, nolakoa da?

Metodologian zerbait nabarmentzen bada, ikasteari balioa ematen zaiola, emaitzei baino gehiago (nahiz eta emaitzak oraindik ere garrantzitsuak diren, jakina). Ingeniaritza fisikoaren gradua nabarmentzen da irakasgaiak oso zabalak direlako, izan ere, irakasgaien artean konputazio kuantikoa dugu, baita optika eta ikusmen artifiziala ere. Hain gradu zabala izanik, benetan garrantzitsuena da kontzeptuak ondo ikastea, eta gauzek zergatik eta nola funtzionatzen duten ulertzea. Ez du balio soilik programa bat edo problema matematiko bat buruz ikasteak, ulertu egin behar da nola funtzionatzen duen ikasten ari denaren zati bakoitzak, eta, Mondragonek eta bere metodologiak ikasteko eredu hori bultzatzen dute.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Jasotzen den arreta da unibertsitateetik gogokoen ditudan gauzetako bat. Bai ahal den guztia ikasteko beharrezkoak diren liburuak eskuratzeko, bai laborategietan ikasitakoa praktikan jartzeko materiala eta instalazioak eskuratzeko, bai irakasleek zure zalantza guztiak argitzeko ematen dizuten etengabeko arreta. Zerbait behar dudan guztietan, horretaz galdetu dezaket inolako trabarik gabe.

A man with dark hair, wearing a black tuxedo jacket, a white dress shirt, and a black bow tie, is holding a large, curved, woven basket. The basket is made of light-colored, woven material and has a dark wooden handle. He is looking directly at the camera with a neutral expression. The background is a dark, solid color.

Zumea, harria, eskua eta larrua

Sopelako Kurene Pilota Elkarteak OSOPILOTARI® aurkeztu du, euskal pilotaren tradizioari bira moderno bat emateko helburuagaz argitaratutako egutegi berritzailea. Egitasmo horren arduradunek azpimarratu dutenez, pilota euskal kulturen errotutako kirola da, eta egutegi honek bere esentzia historikoa azpimarratu eta gizarteratu gura du, testuinguru garaikide eta moderno batean aurkezten duen bitartean.



Ikuspegi fresko eta dinamikoagaz batera, hainbat pilotariren irudiak aurkezten ditu Kureneg egutegian, eta hileru begirada paregabe eta artistikoa eskaintzen dio kirol tradizional honi, inguratzen dion emozioa, trebetasuna eta grina bereganatuz. Kureneko kideek azpimarratu dutenez, gogor lan egin dute egutegi berezi hau aurkezteko: «Gure kirol tradizio aberatsari egindako omenaldia da eta, aldi berean, euskal pilota etorkizunera begira proiektatzeko modu bat, bere erakargarritasuna formatu moderno eta eskuragarrian erakutsiz».



Ideaia Juan Gorostiaga eta North Production Studio publizitate sortzailearen eskutik sortu zen; horretan, Asier Gomez arte eta argazki zuzendaria aritu da, baita Amaia Lauzirika estilista ere. Emilia Bilbao estudioa, bere aldetik, proiektuaren identitate bisualaren eta diseinu grafikoaren arduraduna izan da.





OSOPILOTARI@ euskal pilota ezagutarazteko eta ikusarazteko ekintzak garatuko ditu egunotan. Sopolako Kurene Pilota Elkarteak bultzatutako proiektua Instagram sare sozialeko [@muypilotari_official](https://www.instagram.com/muypilotari_official) kontuan jarrai daiteke.



Agatha Libano Alonso Abokatua

«Kalteberenaren aurkako ankerkeria izan da»

Bizkaiko Auzitegiak sei hilabeteko espetxe-zigorra eta 900 euro inguruko isuna ezarri zion ertzain bati 2023ko azaroan, Getxoko ertzain-etxeko ziegetan atxilotuta zegoen emakume bat fisikoki jazartzeagatik, 2018an. Orain, baina, froga gisa aurkeztutako bideo bat desagertu da, eta Eusko Jaurlaritzak epaiketa hasieratik errepikatzea eta ertzainaren absoluzioa eskatu du.

TESTUA: NAHIA MARTINEZ GONDRA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Zer gertatu zen 2018an? Silvia –kolpatutako migratutako emakumea– Algortako Sarrikobaso kaleko supermerkatu batera joan zen bere orduko bikotekideagaz, eta bera kanpoan geratu zen orkatila bihurritua zuelako. Bertan, Ertzaintzako agente batzuk gaizki tratatzen ari ziren diru eske ari zen pertsona bat, eta, orduan, Silviak defendatu egin zuen. Honek adierazi zuen «joan zaitez zure herrialde zikinera» bezalako irainak jaso zituela ertzainen partetik eta, gainera, supermerkatuko kameretan ikus zitekeen bezala, hainbat bultzada jaso zituela. Horren ondorioz, gainera, Silvia atxilotu zuten, eta ziegetan hasi zen arazoa.

Agente biak Silvia miatzen hasi ziren, eta goitik behera biluzik utzi zuten, guztiz debeatuta dagoena. Emakumea, deseroso, protokoloa normala zela pentsatu zuen, baina, miaketaren ondoren, bere eskubideak zeintzuk ziren esateko eskatu zuen, baita zergatik atxilotu zuten azaltzeko ere. Une hartan, Silviak 500 euro zeramatzan diru-zorroan, bere herrialdera bidaltzeko. Hartara, oso garrantzitsua zen berarentzako kartera berreskuratzea, eta hori hartzeko saiakera egin zuenean, agente batek zakarki heldu zuen. Jarraian, lehen ukabilkada eman zion ertzainak, hortzak mugitzen utzi zizkiona; bigarren bat ere eman zion, eta hirugarren bat ere. Hala ere, azken horren ondoren, emakumea bere burua

Desagertutako bideoa

«Desagertu den bideoa epaitegiko ahozko ikustaldikoa da: auzitegiko medikuak eta psikiatrak egindako lesioen eta Silviaren egoeraren adierazpenak erregistratu zituzten bertan. Benetan kezka garria da defentsaren eta akusazioaren argudioak erakusteko giltzarriak diren grabaketak desagertzea "akats tekniko hautemanekin" baten ondorioz»

defendatzen saiatu zen, eta agentea atzamar-katu zuen. Horren aurrean, bigarren agenteak Silvia plakatu zuen, eta lehenengoak aprobe-txatu zuen beste ukabilkada bat emateko. Guztira, bost kolpe eman zizkioten atxilotuta-koari. Hori dena irudietan ikus daiteke, baina ez zekiten grabazioak eskatuko genituenik. Hala, iritsi zaigun atestatua guztiz kontrae-sankorra da, eta ez du zerikusirik bideoan ikus daitekeenagaz.

Zer gertaera ez dator bat atestatuagaz? Silvia ziega ilun batera bota zuten bitartean, inplikaturako bi agenteek eta geroago batu zen beste batek argazkiak atera zizkioten elkarri atestatua egiteko. Horretan diote ertzain batek belauna okertu zuela Silviaren erasoaren ondorioz, eta akusazio partikular gisa aurkeztu zuten. Gainera, esan zuten Silviak beste agenteari hozka egin ziola, eta errealitatea da marka horiek zituela hari eman zion ukabilkadaren ondorioz. Gainera, bideoan argi ikusten zen ukabilkadak ematen zituen agenteak betaurrekoak lurrera bota zituela; berak horiek ere erreklamatu zituen atestatuan, Silviak hautsi zituela esanez. Agente bakoitzaren lesioen parte aurkeztu zuten erreklamatzeko, eta atestatu bat egin zuten, berez, salaketa bat zena; ez zuten Silviaren ikuspegitik landu. Hala, beti eman izan zaio-nez egiazkotasun-presuntzio osoa agenteek

esaten dutenari, bazekiten atestatu horregaz Silviak kondena osoa izango zuela.

Atestatuan jasotako gertaerak koherenteak ez zirela ohartzean, ikerketa bat hasi zenuen, ezta? Bai, niri ez zegokidan ikerketa bat hasi nuen. Epaitegira polizia-atestatu bat iristen denean, horrek zorrotza, zehatza eta osoa izan behar du. Getxoko ertzain-etxe-ko ziegaren irudiak aurkeztu behar zituzten, baita Silviaren irudiak ere. Horregatik, supermerkatuko eta ziegako kameren irudiak bilatu eta lortu nituen. Agenteek ez zekiten irudiak genituenik. Epaitegian aurkeztu ziren, eta atestatua berretsi eta erreklamatu egin zuten. Ondoren, irudiak bistaratu ziren eta, ostean, pentsatu nuen daborduko irabazi genuela. Baina ez. Agenteak errealtatea desitxuratzen saiatu ziren.

Nolakoa izan zen atestatua jasotzea eta Silvia ezagutzea? Atestatua irakurri nuenean, emakume bortitz, handi eta indartsu bat aurkituko nuela pentsatu nuen. Izan ere, dokumentuan «errespetugabe», «oldarkor» edo «desafiatzaile» gisa deskribatzen dute Silvia. Ziegetara jaistean, izututa zegoen eta aurrean lesioak zituen emakume bat aurkitu nuen. Ezpainak eta begia erabat puztuta zituen. Esan zidan lehenengo gauza izan zen jo egin zutela, baina ez zuen nire laguntza onartu nahi izan, ez zelako nitaz fidatzen. Zituen lesioak auzitegiko mediku batek erregistratzea nahi zuen soilik; izan ere, ez zen fidatu Urdulizko ospitaleko medikuaz ere: eskuburdinez eraman zuten, eraso egin zioten agenteak batera. Behin eta berriz saiatu ostean, bere konfiantza irabazi nuen eta auzitegiko mediku batengana eraman nuen, baina orri soil bateko txostena egin zuen. Gertatu zitzaionaren argazki bakar bat ere ez ateratzearen falta sumatu nuen. Gainera, esan zidan eman zioten ukabilaren ondorioz hortzak mugitzen zitzaizkiola, eta txostenean ez zuten hori jaso. Horregatik, gomendatu nion berak bere buruari argazki batzuk ateratzeko eta niri bidaltzeko. Halaber, ospitale batean miaketa bat egiteko esan nion. Psikologikoki suntsituta zegoen emakume bat zen, ezin zion negar egiteari utzi. Urdulizko ospitaleko txosten berriak informazio hori guztia jasotzen du.

Urte hauetan, nolakoa izan da kasuaren bilakaera? Silviak hertsapena eta jazarpena jaso ditu 2018tik hona. Horregatik, leku askotara jo dut: Espainiako Auzitegi Nazionalera, Konstituzio Auzitegira, Espainiako Estatuko Herri Defendatzailerara, Euskal Herriko Herri Defendatzailea den Arartekora... SOS



«**Jarrera edo adierazpen arrazistak erakunde publikoetatik datozenean, inpaktua ikaragarria da, botere-harremana agerikoa delako. Nora jotzen duzu zaindu eta babestu behar zaituen pertsonarengandik datorrenean indarkeria?**»

SOS ARRAZAKERIA

Arrazakeria elkartera ere joan nintzen, eta bertan asko lagundu zidaten. Silviari zazpi urteko espetxealdia eskatu zion Eusko Jaurlaritzak, eta hiru urte eta erdi Fiskaltzak. Asko lan egin dugu egia azaleratzeko, eta 2023an sententzia atera zen. Laburbilduz, sei hilabete-ko espetxe-zigorra eta Silviari kalte-ordaina emateko kondena ezarri zitzaion ertzainari tortura-delitu modalitate arinenagatik: osotasun moralaren aurkako delitua, alegia. Silviari, aldiz, 300 euroko isuna ezarri zioten, eta, ordaintzen ez badu, espetxe-zigorra.

Orain, Eusko Jaurlaritzako abokatuak, ertzainen ordezkari gisa, epaiketa baliogabetzeko eta agentea absolbitzeko eskatu du bideo bat «desagertu» delako. Nik, berriz, Silvia absolbitzeko eta agentea kondenatzeko eskatu dut. Halaber, lehen egunetik azpimarratu nituen delituak ikertu ez izana ere salatu dut, hala nola ezkutatzea, atestatua faltsutzea eta salaketa faltsua egitea. Gainera, zigorrik ez jasotzeko ertzainek egindako jarduna salatu dut, baita biktimari eragindako egoera ere,



Agatha Libano abokatuak 2018tik darama Silviaren kasua zuzentzen. HODEI TORRES

prozedura hainbat urtetan luzatzen duten beste prozesu judizial batzuk onartzen saiatu direlako momentu oro.

Zein da «desagertu» den bideoa? Epaitegi-ko ahozko ikustaldikoa da. Bertan, auzitegi-ko medikuak eta psikiatrak egindako Silviaren lesioen eta egoeraren adierazpenak erregistratu zituzten. Benetan kezagarria da defentsaren eta akusazioaren argudioak erakusteko giltzarriak diren grabaketak desagertzea «akats tekniko hautemanezin» baten ondorioz. Harri-
garria bada ere, ez da desagertzea ikertu. Bere-
ziki susmagarria da hori gertatzea ertzainaren kondenarako erabakigarriak izan daitezkeen testigantzak direlako. Badirudi botere-abusua izan daitekeela, bereziki «akats» horrek zuze-
nean alde akusatuari mesede egiten dionean eta biktima berbiktimizatzen duenean.

Hala ere, nola zen posible ziegako irudiak ikusi arren Silviari hasieratik arrazoa eman ez izana? Silviaren kasua akats esangura-

«Silviaren kasuak erakusten du arrazismoaren gaiztakeria, deshumanizazioa eta berbiktimizazioa. Era berean, opresio-modu desberdinek gizarte honetan nola jarduten duten ikus dezakegu, hala nola jatorriak, klase sozialak eta generoak»

SOS ARRAZAKERIA

tsuek markatu dute hasieratik, Fiskaltzaren ekintza eztabaidagarri batzuk barne. Nahiz eta ebidentzia sendoak aurkeztu, hala nola bideoak eta Silvia torturatu egin zutela ondorioztatu zuen Istanbulgo txostena, epaitagian legezko oztopoak aurkitu nituen eta akusazioak mugatu zizkidaten.

Silviaren kasua bidegabekeriaren eta zigorgabetasunaren adibide garbia da. Zati bat soilik ikertzen utzi didate eta jazotakoaren ikuspuntu bat soilik erakusten ahalegindu dira, nahiz eta denok dakigun benetan zer gertatu den, frogagisa ditugun irudiei esker. Absurdoena zen Silviari eman zizkieten bi ukabilkadengatik bai-
zik ez zidatela akusatzen uzten, benetan bost izan zirenean. Hori ebazpen judizial batean izandako akats baten ondorio da; izan ere, harri-
garria bada ere, kolpe kopurua eta polizia-
jarduera oker kontatu ziren. Ebazpena oinarritu zen Ertzaintzako agenteak bere deklarazioan adierazitakoan eta, bere esanetan, bi ukabilkada eman behar izan zizkion Silviari bere kidearen osotasuna arriskuan ikusi zuelako. Errealitatearen zati bat bakarrik islatzea deigarria da, errealitate bat, erdizka, gezurra delako. Gainera, kasu honek erakusten du sistema judizialaren bidez ere polizia-agenteen zigorgabetasuna babesten saiatzen direla, pertsonen osotasun morala tartean dagoenean.

Kasu honetan inplikaturako agenteek lanean jarraitzen dute gaur egun? Bai. Ez zaie inolako ikerketarik ireki Silviak salatutako pertsoneri eta ez dute inolako zigorririk izan, ez administratiborik ez judizialik. Azken hori da, hain zuzen, errekurritzen ari naizena. Hemen gertatu dena izan da pertsona kaltebe-
renaren aurkako ankerkeria. Gertaeren egia materiala baino ez dugu nahi. Egia irudietan dago. Zergatik ez didate uzten horiek erakusten? Hala, deigarriena da Eusko Jaurlaritzaren errekurtsioa iritsi zaidala agentearen deuseztagarritasuna eta epaiketaren errepi-
kapena eskatuz; Eusko Jaurlaritzak biktima babestu beharko luke.

Nolakoa izaten ari da zuretzako kasu hau eramatea? Ohorea eta erronka izan da Silvia prozesu honetan laguntzea. Bere hauskortasunean, guztion eskubideen aldeko borrokalaria nekaezina dela erakutsi du Silviak, zigor eta isun guztiei aurre eginez. Miresgarria da justizia egiteko hasieratik erakutsi duen adorea, eta herritarren ausardiaren adibidea da. Hala ere, bidea nekagarria izan da, eta erakundeekiko etsipena sakona eta frustragarria; izan ere, balio demokratikoak aldarrikatzen dituzten bitartean, egoera hauek ahalbidetzen jarraitzen dituzte. ◀

Otsaila

Barrika

Otsailak 13, martitzena

Tostada-lehiaketa

18:00 | Barrikako udaletxean

Barrikako tostada-lehiaketa entzutetsua.

Otsailak 16, barikua

Tailerra: arlekin mugikorra

18:00 | Ander Deuna Aretoan

5 eta 12 urte arteko umeentzako ludotekako jarduerak. Izena eman behar da liburutegian.

Otsailak 23, barikua

Tailerra: inauterietako txanoa

18:00 | Ander Deuna Aretoan

Izena metako deitu 946 775 163 zenbakira edo idatzi liburutegia@barrika.eus helbidera.

Berango

Otsailak 17, zapatua

Antzerkia: Yo soy Sketch

19:00 | Berango Antzokian

Getxoko Las Guindillas taldearen helduentzako obra.

Otsailak 24, zapatua

Bakarrizketa: Tu-Tum, Platz!

19:00 | Berango Antzokian

Jon Plazaolaren sorkuntza helduentzako.

Erandio

Otsailak 18, domeka

Antzerkia: Almazanean

19:00 | Merkatu Zaharrea

Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxagaren antzezlan dibertigarria.

Otsailak 29, eguena

Disko-aurkezpena: Gorrondatxe

19:30 | Merkatu Zaharrea

Folk laukote euskaldunak bere diskoa aurkeztuko du.

Getxo

Otsailak 13, martitzena

Tor Magoaren bitxikerien mundua

12:00 | Muxikebarrin

Magia ikuskizuna.

Otsailak 16, barikua

Antzerkia: Esnearen kolorekoa

19:30 | Muxikebarrin

Irakurleak liluratu eta hunkitu zituen liburu baten antzerkirako egokitapena.

Otsailak 18, domeka

Antzerkia: Mundua pitzatuta dago, baina han gabiltza oinez

18:00 | Muxikebarrin

Harkaitz Cano idazlearen liburuan oinarritutako obra.

Otsailak 23, barikua

Bertsolaritza: XXIII. Abra Saria

19:00 | Azebarrin

Bertsolariak: Haizea Telleria, Irantzu Idoate, June Diaz, Eli Zaldua, Idoia Granizo eta Danel Etxeberria.

Gorliz

Otsailak 11, domeka

Euskal inauterien ikuskizuna

18:30 | Elexalden

Aratz Dantza Taldearen eskutik.

Otsailak 16, barikua

Zine-foruma genero ikuspegiagaz

18:00 | Sertutxenan

La gran mentira pelikula ikusiko dute.

Otsailak 21, eguaztena

Ipuin kontalaria

17:00 | Sertutxenan

Ikasleen Guraso Elkarteak antolatuta.

Leioa

Otsailak 16, barikua

Musika: Slide

20:30 | Kultur Leioan

Funk&Soul talde ikusgarriaren kontzertua; sarrera 10 euro.

Otsailak 18, domeka

Antzerkia: Andereño

18:00 | Kultur Leioan

Umeentzako eta familientzako txotxongilo-ikuskizuna.

Otsailak 23, domeka

Antzerkia: ¡Guapa!

20:30 | Kultur Leioan

Ikusten ez den edertasunari buruzko ikuskizuna.

Lemoiz

Otsailak 12, astelehena

Euskal Bandoleroen buruhandiak

17:00 | Andraka auzoan

Inauterietako programagaz bukatzeko, zinema emanaldia eskainiko dute Andrakako kultur gelan.

Plentzia

Otsailak 21, eguaztena

Elikadura burujabetza, bertokoa eta agroekologikoa

19:00 | Goñi Portalen

Berbaldia eskainiko du Txomin Urkizak, Uribe Butroeko sarea eta Butroi Bizirik Trantzisioan.

Otsailak 19 eta 26

Memoria bulegoa

11:00-13:00 eta 15:00-19:00 | Topalekuan

Aranzadi Zientzia Elkarteak plentziarren testigantzak jasoko ditu.

Otsailak 23, barikua

Bakarrizketak

19:00 | Goñi Portalen

Leire Ruiz (gaztelerez) eta Jose Cruz Gurrutxaga (euskaraz).

Sopela

Otsailak 15, eguena

Dokumentala: Karpeta urdinak

19:00 | Kurtzio kultur etxean

Proiektzioaren ostean solasaldia zuzendariagaz.

Otsailak 25, domeka

Antzerkia: Andereño

18:00 | Kultur Leioan

Txotxongilo-ikuskizuna euskaraz. Sarrera 4/5 euro.

Otsailak 29, eguena

Esa maravillosa niebla

18:00 | Kultur Leioan

Mikel Bizarren musika- eta literatura-proiektuaren aurkezpena.

Urduliz

Otsailaren 14tik 29ra

Erakusketa: Mitologika

Kultur etxean

Raquel Alzatek egindako pertsonaia mitologikoen irudien erakusketa egingo du.

Otsailaren 14tik 29ra

Berbaldia: Autoestimua eta autozainketa artearen bidez

18:00 | Kultur etxean

16 urteko emakumei zuzenduta, alde aurretik izena eman beharko da.

Otsailak 17, zapatua

Aratustekak

17:00 | Antsonokoa plaza

Gaia zirkua izango da. Eurria bada Lehendakari Agirre plaza eta Marutze pilotalekuan.

Onura nabarmenak pazientearentzat

- ✓ **1. Min gutxiago eta ondoez txikiagoa:** Ohiko ebakuntza kirurgikoetan ez bezala, zainen bidezko laserrak min eta ondoez gutxiago eragiten die pazienteei. Ebaki txiki- txikiak egiten direnez, inguruko ehunetan gerta daitekeen trauma murriztu egiten da. Horren ondorioz, pazienteak azkarrago sendatzen dira eta ebakuntzaren ostean, eragozpen gutxiago izaten dituzte.
- 🌱 **2. Oso denbora gutxi geldi:** Pazienteek ia berehala berreskura dezakete ohiko bizimodua.
- ✓ **3. Emaizta estetiko hobeak:** Zainen bidezko laserrak barize-benen estetika hobetzen du, zainen itxura onduz. Horrela, pazienteen ongizateak ere hobera egiten du.

INFORMAZIO
GEHIAGO BEHAR
IZANEZ GERO
QR KODE HAU
ESKANEAU



DERMITEK

Uribitarte pasealekua 11-12. 48001 BILBO

(Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefonoa: 944 010 110

Astelehenetik barikura: 8:30-20:00
Zapatuetan: 9:00-15:00



MEDIKU - TALDEA

RAQUEL LAMBEA dk.

Zain barneko laserrean 13 urtetik gorako esperientzia duen medikua

RICARDO RINCÓN dk.

Kirurgialaria

RICARDO ITUARTE dk.

Erradiologo interbentzionista

IÑAKI MARTIN dk.

Erradiologo interbentzionista

P.S.E. 92/21

Laserraren bidezko zainen tratamenduaren mundu liluragarria

Ohiko osasun-arazoak tratatzeko osabideak bilatze aldera egiten den lan etengabearen, zainen bidezko laserra aukera iraultzailea da bena-gutxiegitasunari aurre egiteko. Izan ere, tratamendu hori aurrerapen handia da osasun baskularraren zaintzan, onura bikainak eta emaitza oparoak eskaintzen ditu eta.

ZERTAN DA TRATAMENDUA? ZAINEN BIDEZKO LASERRA DESMITIFIKATZEN. Funtsuan, tratamendua laserraren teknologian oinarritzen da. Hura erabiliz barize-benak itxi eta zainetako gutxiegitasuna tratatzen da. Zainaren barruan ultrasoinu-irudiek denbora errealean gidatutako zuntz optiko mehe bat jartzen da. Behin kokatuta, laserrak energia-pultsuak igortzen ditu, kaltetutako zaina modu kontrolatuan ixten dutenak. Prozesu hori oso eraginkorra izateaz gain, sendatzeko behar den denbora nabarmen murrizten du; horrela, tratamenduaren ostean, pazienteek erraz berreskuratzen dute ohiko bizimodua.

ETENGABEKO IKERKUNTZA ETA ETORKIZUNEN GARAPENA. Laserraren teknolo-

giak aurrera egiten duen heinean, zainen bidezko laserraren aplikazioek ere egiten dute aurrera. Azterlan klinikoen emaitzek aurrerapen handiak erakutsi dituzte zainen bidezko laserrak zain handiagoak eta konplexuagoak tratatzeko duen gaitasunean, aukera berriak eskainiz zainetako arazo larriagoak dituzten pazienteei.


KONKLUSIOA: ESPERIENTZIA ERALDATZEN. Laburbilduz, zainen bidezko laserra ez da aukera huts bat osasun-tratamenduen mundu zabalean; haratago doa, osasun baskularraren zaintzan iraultzailea da eta. Emaizta bikainak eman ez ezik, pazienteen esperientzia guztiz bestelakoa da, tratamendua ez delako horren inbaditzailea, eta min gutxiago emateaz gain, pazienteak azkarrago sendatzen direlako.

Onura agerikoak izanik eta arlo horretan etenik gabe egiten ari diren ikerkuntzari esker, zainen bidezko laserra zutabe sendoa da zainen gutxiegitasunaren kudeaketa modernoan. Osasun baskularraren gaur egungo panoraman garrantzi nabarmena du, gaitza tratatzeko ez ezik, itxura estetiko hobetzeko ere gaitasun aparta du eta.

Lehen/Orain **Erandioko tren-geltokia, 80ko hamarkadan**



Uribitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA
Nahikari Ayo
Acebo

DOINUA
Itsasoari begira

ARGAZKIA
Iker Torre
Navarro

Argi izpi bat

*Zeinen iluna dugun negua
baita ere bakartia.*

*Koban sartuta, hotza denean
animalia lotia.*

*Baina negua igaro ahala
esnatuz doa piztia.*

*Hosto artean ikus daiteke
argitxo bat lotsatia.*

*Behingoz, bederen, gure artean
agertu da eguzkia.*

*Uribe Kosta hein handi baten
dugu porlanez betea.*

*horrexen alde herritar batzuk
Txaleta eta asfaltoari*

*Eskualdea nahiko genuke
berdea eta askea.*

*Gizakiaren helburua da
hirian bizirautea:*

*zeinen zaila den gure inguruan
argi izpi bat ikustea.*

*Covid, estula, sukar handia
ta gripea arrastaka.*

*Apurka-apurka, arinduz doa
urtarrileko aldapa.*

*Kendu eta gorde, zure armairuan
berokia eta jaka.*

*Udaberria helduko zaigu
martxo erdia pasata!*

*Uste baino lehen esango dugu
«negua joan egin da ta».*

Vulcanizadas

«Blues estiloan eroso gaude, baina ez dugu mugarik»

TESTUA: IKER RINCON MORENO

ARGAZKIA: VULCANIZADAS-ARITZ ALBAIZAR ▶

Ameriketako blues eta soul doinuak Euskal Herriko agertokietara eroaten dituen boskotea da Vulcanizadas. Eskarmentu handiko musikariak dira emakumeok, eta martxoaren 1ean igoko dira Algortako Muxikebarri Antzokiko oholtzara euren lehenengo LPa eskuetan dutela, egun horretan aurkeztuko baitute lana. Indarrez eta maitasunez idatzitako 11 abestiz osatutako diskoa da eta, aitortzen dutenez, gogotsu daude egindakoa publikoagaz partekatzeke.

Nortzuk zarete Vulcanizadas, eta nondik zatozte? Jone Ibarretxe (Romo), Elsa Garcia (Trapagan), Virginia Fernandez (Leioa), Izaskun Simon (Galdakao) eta Nerea Arrieta (Bilbo) gara. Guztiak ibili gara urte askoan musika egiten, Cecilia Payne, Free the Wheel edo Last Fair Deal bezalako bandetan.

Musikari dagokionez, zeintzuk influentzia izan dituzue? Leku ezberdinetatik gatoz: rock, blues, soul, jazz... Kide bakoitzak bere influentziak ditu eta askotariko musika entzuten dugu. Bandari dagokionez, esan dezakegu soul, blues eta R&B bandak ditugula erreferente: Aretha Franklin, Vulfpeck, Brittany Howard, Carole King, Nina Simone... Baina baita Eta The Beatles ere. Beti The Beatles, kar kar.

Zelan ikusten duzue gure inguruko musika-eszena? Aukerak daude oholtzara igotzeko? Bai, areto, udal eta herri ekimenekin badaude jotzeko aukerak, baina horietan ere baldintza minimo batzuk bermatzea zaila izaten da. Bandentzat oso lagungarri da hemen kultura zaintzen eta musika maite duten hainbat gaztetxe, elkarte eta pertsona egotea gauzak egiten. Horregatik egon dira beti horrenbeste banda Euskal Herrian.

Kartelak ikusita, emakumeak oraindino ere ez dira gehiengo. Bidean arazorik izan duzue emakume izatearren? Bai, emakume guztiok izan ditugu arazoak emakume izatearren gure bizitzako esparru ezberdinetan, eta musika ez da salbuespen bat. Karteletako desore-



Kontzertua martxoaren 1ean, Muxikebarrin

Diotenez, mimos prestatu dute Getxoko kontzertua, eta gonbidaturen bat izango dutela iragarri dute. «Berezia izango da guretzat, irrikitan gaude». Udagoienean grabatu zuten haien lehenengo LPa, eta, horregaz egindako lanaren ostean, kontzertuaz gozatu gura dutela azpimarratzen dute.

kak agerian uzten du arazoak badaudela. Guk nahi duguna da abestiak egiten jarraitzea, eta espero dugu gizarteak aurrera egitea eta denon artean lortzea harridurarik ez egotea artea egiten duten emakumeak ikustean. Harri-dura honek ez du ezer onik erakusten.

Martxoaren 1ean aurkeztuko duzue zuen lehenengo LP-a. Zelakoa izan da hori ekoizteko lana? 2023ko udazkenean grabatu genuen Bilboko El Tigre estudioetan, Xabier Eguiarekin. Estanis Elorzak masterizatu du eta Naiara Goikoetxeak diseinu ederra egin du. Maitasun osoz idatzi eta moldatutako 11 abesti grabatu ditugu: prozesu oso polita izan da eta gogotsu gaude jendearekin partekatzeke. Bideoklipa ere grabatu dugu *Indarberritzen* abestiarekin.

Inguruotan rocka nagusi dela dirudi, eta zuek blues eta soularen munduan zabilzate, ezta? Guri gehien gustatzen zaigun rocka bluesetik datorrena da. Inguruan rock asko izateak pozten gaitu. Gainera, gero eta estilo ezberdinetako banda gehiago daude, eta hori izugarria da. Publiko bezala gero eta musika anitzagoa entzuten dugu guztiok, eta hori aberasgarriagoa eta dibertigarriagoa da. Gu, musikari moduan, erosoago gaude blues eta soul estiloetan, baina ez dugu gure burua mugatzen. ◀

URIBE KOSTA Agate Deuna

Makilen kolpez, lurra itzartu dute

Ohiturari jarraituta, otsailaren 4an, ehunka herritar, gazte eta ez hain gazte atera ziren kalera, jantzi tradizionalakaz eta makilak lagun, Agate Deuna martiriari gorazarre egitera eta lurra esnatzera, koplaka eta kolpeka. Hona hemen egun hark utzitako hainbat irudi.



Onintza Olaizola Auzoko Elkarrizketak-Euskaltzaleen Topagunea

«Kezkagarria da etorkizunera begira euskara ez dela balioan jartzen ari»

Getxoko hizkuntza aniztasunaren egoera zer-nolako den aztertzeko asmoz, Auzoko Elkarrizketak lansaioa egingo dute Azebarrin otsailaren 18an Euskaltzaleen Topaguneak eta Egizuk.

IKER RINCON MORENO ▶

Onintza Olaizola zarauztarra Euskaltzaleen Topaguneko aniztasun arloko kudeatzailea da eta, hori dela eta, otsailaren 18an Azebarrin egingo duten Auzoko Elkarrizketak egitasmoaren nondik norakoez aritu gara beragaz lerrootan.

Zein da Auzoko Elkarrizketak egitasmoaren helburua? Jatorri eta hizkuntza komunitate ezberdinen elkarbizitza saio honen bidez, Getxoko aniztasun linguistikoaren argazki bat ateratzea da asmoa, egungo egoeraz jabetu eta etorkizunera begirako helburuak ezarri ahal izateko. Gaur egun denok bizi ditugu gero eta jendarte anitz eta aberatsagoak, eta horrek erronka bat ekarri digu hizkuntzaren normalizazio prozesuan. Horregatik, denon artean erronka horri erantzuna ematea bilatzen dugu gizarte elkarriketa honen bidez, non denon bizipenek berebiziko garrantzia izango duten gure lanaren norabidea ezartzerakoan.

Zeintzuk dira hizkuntza baten erabilera areagotzeko gakoak? Aniztasunaren ikuspegitik, aurrean dugunaren hizkuntza eta kulturaren aitortza eta hori balioan jartzea ezinbestekoa dela uste dugu. Inposatzeak ez du euskararekiko aldekatasunik eragingo, erresistentziak areagotu baizik. Orduan, lehen pausoa da aldekatasun hori bilatzea, euskararekiko jarrera positibo bat. Ondoren, euskara ikasteko erraztasunak jarri beharko lirateke eta, azkenik, euskararen normalizazioan denok egin dezakegun ekarpena balioan jarri: lehen hitza euskaraz egitea, parekoak euskaraz hitz egin dezan ahalbidetzea eta, zergatik ez, hanka lasai sartzeko aukera eta tartea ematea, behar-beharrezkoak direlako.

Zelan indartu daiteke euskararen aldeko jarrera gaur egun? Duela gutxi Onintza Enbeitak esandakoa ekarriko dut gaurkora: «Eus-



Olaizola jatorri anitzeko jendeagaz interbentzioan aritu da. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Euskara eta migratzaileak
«Euskarari ez zaio duen eta merezi duen garrantzia ematen, “tu aprende castellano, que con eso es suficiente” da iristen zaien mezua»

Auzoko Elkarrizketak
«Euskararen normalizazioan interesa dutenei zein euskaratik urrun bizi diren pertsoneri zabaltzen diegu gonbitea»

kara ez da altxor bat». Erabiltzeko, bizitzeko, hanka sartzeko, eboluzionatzeko, hitz berriak asmatzeko eta moldatzeko hizkuntza da, eta hori transmititzea oso garrantzitsua da.

Jarrera hori aldatu da urteotan? Esango nuke okerrera egin duela, eta horren erakusle dira azken boladan euskararen inguruan egon diren hainbat sententzia. Gainera, egungo aisialdiaren kontsumoa hizkuntza hegemonikoetan ematen da eta horrek euskara alor akademikora mugatzen du. Hori kezkagarria da, batez ere etorkizunera begira euskararen balioa ikusten ez delako, inguruak ere mezu horiek ematen dituelako.

Pertsona migratzaileen kasuan, zeintzuk zailtasun topatzen dituzte gurean euskararen murgiltzeko? Hasteko, ulertu behar duguna da gurera iristen direnean bere oinarriko beharrak asegabe izaten dituztela askotan, eta hizkuntza ez da lehentasun bat. Baina, ondoren ere, euskarari ez zaio duen edo merezi duen garrantzia ematen. Askok ez dakite euskara zer den ere, inork ez dielako esan. Gu gara euskarari garrantzia kentzen diogun lehenengoak; gainera, badago migratutako familien ondorengo belaunaldiek bizi duten egoera: euskara ukatzen zaiela euskaldunak izan arren; aurreiritziz beteta gaude. ◀

Inhauteriak eta hauteskundeak

GORKA MOSTAJO Gizarte-langilea



Bere egunean negutik udaberrira igarotzeko mozorro-festak ziren inhauteriak, zomorroak uxatzeko errituak. Gaur egun, ordea, mozorrotu eta elkarri zirikatu eta ondo pasatzeko datak dira. Telebistako albistegietan euren protagonismoa izango dute han-hemengo inhauteriek, baina ez politika arloan euren mezuak txertatzen hasi diren lehendakariak bezain beste. Erne hautagai batzuekin! Kudeatzaile onaz mozorrotuta ekin diote kanpainari, bete ezingo dutena eskainiz. Joseba Diez EAJko Arabako hautagaiari entzun nion: «Ezer betetzeko asmorik ez dutenek dute dena posible dela esateko atrebentzia», halaxe ibiltzen dira ezker zein eskubiko populistak. Batzuk, gainera, inongo kudeaketa-esperientziarik gabe! Inhauterien biharamunean ohikoa da lagunak bildu eta, algara artean, mozorroa komentatzea, elkarri ziria sartzea... aurreko egunak emandakoaren ajea soinean. Inhauterien ostean, zenbait politikari populistek ez dute mozorroa erantziko, zoritxarrez. Danon lana da, beraz, gaur mozorroturik dabiltzanak identifikatu eta diotena kontrastatzea. Hala, etzidamu, hauteskundeen biharamunean, ez digute ziria sartuko ezinezkoa dena agindu digutela sinetsita, eta lau urtez damututa ajea igaro orde, barre egingo dugu: inhauterietako biharamunean bezala.

Ez dakit

AINHOA ORTELLS IGARTUA Kulturgilea eta artista



Ez dakit zergatik, azkenaldian ez naiz lehen bezain seguru sentitzen herrian.

Ez dakit zergatik, etxetik irtetea ere kostatzen zait batzuetan.

Ez dakit zergatik, ni mintzea erabaki zenuen gau horretan.

Ez dakit zergatik, norbait mintzearen beharra izan zenuen egun horretan.

Ez dakit zergatik, zu hain minduta zeunden halakorik egiteko.

Ez dakit zerk, edo nork, edo nortzuek eraman zintuzten hori egitera.

Ez dakit zergatik, gure kasua ehunetik bat baino ez da.

Ez dakit zer ari garen txarto egiten.

Ez dakit zerk, edo nork, edo nortzuek eman ahal izango dioten konponbidea.

Ez dakit.

Ala agian badakit. Ez dakit.

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Eta tokiko komertzioei bultzadaxo bat ematen badiezu? Ezagutu eskualdeko negozioak gure OKM atalean, betiere, hiruka.eus webgunean!



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Hasi gorputza berotzen, Korrika heltzeaz dago eta. Saiatu zure egunerokoan luzaketa batzuk egiten. Nabaritu duzu ezberdintasuna!



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Otsailaren 9ko ilberriak egundoko eragina izango du zugan. Intentzio eta erronka berriak landatzeko ordua da. Zure momentua da.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Itxura aldaketa bat egin gura duzu baina emaitzak beldurtzen zaitu. Estetika beti hobetu daiteke, beraz, arriskatu!



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Jaten dugunak eragin handia du gure osasun emozional eta fisikoan. Beraz, adi zer sartzen duzun zure gorputzera!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Meditatzen ez dakizula dinozu, baina akaso saiatu zara? Bilatu unetxo bat zure buruagaz egoteko eta kontzentratu zure arnasketan.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Txutxu-mutxuka aritzea oso dibertigarria da zutaz hitz egiten duten arte, ezta? Autokritika da besteak zaintzen ikasteko bide bakarra.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Noiz izan zen dentistarengana joan zinen azken aldia? Mesedez, hartu hitzordua lehenbailehen. Zure hortzek eskertuko dizute.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Egunero begirada ezkutuak gurutzatzen dituzu metroko ezezagun misteriotu horregaz; hurbildu eta esaiozu zerbait! Bizitza jolasa da.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Sinestezina dirudien arren, daborduko otsailan gaude. Hasi zara zure 2024ko autoproposamenak betetzen? Ekin, bada!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Hiriko erritmoak naturaz deskonektatu zaitu eta uneoro nekatuta sentitzen zara. Erreserbatu egun bat hondartzara edota mendira joateko.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Nahiz eta eguzkia atera ez zaitez fidatu, eraman beti soinean jertse bat, badaezpada. Birusak inguruan daude, beti esperoan.



Atuste-matuste

Inauteri garaian Euskal Herrian ez da **gozogilea** izan behar **torradak** egiten ausartze-ko. Zer dira baina torradak? Nonbaitetik datoz, edo hemen sortuak dira? Izenetik hasiko gara.

Torrada da euskarazko hitz orokorra inauterietako jaki gozo ezagunari deitzeko. **Tostada** ere esaten zaio mendebaldeko euskaraz. Hemengo eta Kantabriako gaztelaniaz ere **tostada** esaten zaio (erdarara zabaldutako euskal berba dela dirudi). Gaztela aldean, berriz, **torrija** deitzen diote. Halandaze, pentsa daiteke torrada berba torrija-ren eta tostadaren arteko hibridoa ez ote den.

Torradaren jatorria, bestetik, ez dugu ez hemengoa, ezta atzo goizekoa ere. K.o. I. mendeko Marko Gavio Apizio (latinez *Marcus Gavius Apicius*) izeneko gastronomo erromatarra izan ei zen torradaren antzeko jatekoaren berri eman zigun lehena. Milanen 1498an argitaratutako *De re coquinaria* liburuan Apiziok bere garaian emandako errezetak bildu omen zituzten, torradarena barne. Errezeta horren oinarrian esnetan bustitako ogi xerra edo ogi mamia dago, eta aldaera bi proposatzen dira: batean ogia labean erretzea, eta bestean frijitzea. Kasu bietan gainetik ezta botatzen zaie, eta labean erretakoari baita piper hautsa ere (ikus dezakezuenez arrautza ezta hemen ageri; hori askoz geroago gehituko zitzaion). Derragun bidenabar Apizio delako hura aberats **satsitua** genuela eta bere buruaz beste eginda hil zela, pozoia edanez, bere bizitzan zehar egindako larregikeria gastronomikoez eta diru xahuketa neurribakoek hartaratuta.

Gurera etorrita, eztabaida dago ea zein torrada diren 'autentikoagoak', **fotezkoak** ala **ahiezkoak**. Zaharrenak, behintzat, ogizkoak direna argi utzi dugu. Eta seguru antzean, ogi gogorra aprobetxatzeko sortuko ziren. Batzuk zein bestetzuk, euskal torradek badute aparteko berezitasunik: hemen inauterietan jaten dira, eta ez garizuman, gainerako leku gehienetan legez. «**Atuste-matuste, fotezko torrada barik mahai hutse**», dio Augustin Zubikarai idazle ondarroarrak baturiko esalegeak. Jateko sasoiari gagozkiola, behintzat, bai aldentzen gara ingurukoetatik.

Ezagun da gizartearen bilakabidean paganismoaren eta kristautasunaren artean egon den erlazio nahasia. Kasu gehienetan, baina, ohitura kristauak **teilakatu** egin zaizkio lehenetik zeuden paganoei, zenbaitetan zaharrenen jatorria erabat ezabatzeraino. Torradak jateko garaia kasua, esaterako, salbuespena litzateke, inauterien jatorri pagano zaharra nagusitu delako.

Eta gaurkoaren **azkenburu** legez, gure eskualdeko postre gozo bitxi bat aurkeztuko diuzet, txiripaz topatu dudana Iñaki Gilisastiren *Urduliz aldeko berba lapikokoa* liburu zoragarrian: **infernuko katua**. Ogia ardotan busti eta azukrea gehitu. Sasoi hotzari aurre egiteko berebizikoa! ◀



Berba azoka

Gozogile

Gozokiak (tartak, pastelak, karamelu edo oñoñak...) egiten dituen pertsona.

Torrada

Esnetan beraturiko ogi xerra irin-arrautzetan pasatu, frijitu eta azukrezaturik egiten den gozokia.

Tostada

Kasuon, inauterietako torrada gure eskualdeko berbakeran.

Satsitua

Kasuon, porrokatua, amorratua.

Fotezko

Fot ogizko opil mota bati esaten zitzaion, gosarian hartzen zena. Fotezko torradak ogiz egindakoei esaten zaie egun.

Ahiezko

Ahia edozein irin egosirik, bereziki esnetan, egiten den jateko ore arina da. Ahiezko torradak, ogiz barik, irinez egindakoa dira. Egun kremazko torradak ere esaten zaie.

Atuste-matuste

Atuste aratuste hitzaren laburdura da eta inauteria esan nahi du. Matuste aurreko hitzaren errepikapen jostaria da, baliabide estilistiko eran erabiltzen dena, aparteko esanahirik gehitu barik. Errepikapenean m letra txertatu ohi da, ikusi-makusi, aiko-maiko edo zoro-moro kasuetan bezala.

Teilakatu

Gauza bi edo gehiago teilak jartzen diren bezala jarri, batak bestea guztiz estaltzen ez duela.

Azkenburu(ko)

Postrea, deserta.

Infernuko katua

Gure eskualdean beldar mota bati esaten zaio infernuko katua. Baita postre mota bati ere, ogi, ardo eta azukrez egiten dena.

Panda Raid Fadura LHIIko ikasle eta irakasleak



Martxoaren 1etik 8ra, ikasle-irakasleak Marokon barrena arituko dira, eta gertatzen zaiena kontatuko dute zuzenean www.hiruka.eus atalean.

Aurten ere, Algortako Fadura LHII institutuko irakasle eta ikasleek Panda Raid orientazio-probari aurre egingo diote. Iaz legez, hiru irakasle joango dira: Garikoitz Urizar, Arkaitz Amezaga eta Aitzol Barañano; eta horiei batuko zaizkie Lukas Idoyaga, Eder Fernandez eta Xabier

Cerrillo Elektromekanika zikloko ikasleak. Seiak Marokoko basamortuetan barrena arituko dira martxoan, hilaren 1etik 8ra, eta bertan jarriko dituzte proban ikasturtearen hasieratik prestatzen aritutako hiru Fiat Panda ibilgailuak.

Sei etapatan banatutako orientazio-proba da Panda Raid, Maroko osoa zeharkatuko duena, Mohamed lakutik hasita Medhiara. Denera, 340 taldek eman dute izena aurten eta, orokorrean, parte hartzaileek 10 ordu inguru eman behar izango dituzte egunean gidatzen, hondarrezko bideetatik 200 eta 300 kilometro gainditzeko. ◀

Raspas Arraun Distantzia luzeko Espainiako Txapelketa

Urrezko eta zilarrezko domina bana, etxera

Raspas del Embarcadero Arraun Elkarteak urrezko eta zilarrezko domina bigaz bueltatu da Galiziatik, otsailaren 3an, zapatuan, Castrelo de Miñon (Ourense) izan den banku mugikorrek distantzia luzeko Espainiako Txapelketan lortutakoak. Domina biak skiff (1X) modalitateari dagozkio, emakumezkoen maila absolutuan: urrea Virginia Diaz Rivasentzat izan da, 21:23,06ko denboragaz, eta zilarra Esther Briz Zamoranorentzat (21:57,23).

Horrez gainera, talde getxoztarrak bederatzia domina gehiago lor-



Esther Briz eta Virginia Diaz. RASPAS

tu ditu azken asteotan jokatutako Euskadiko eta Bizkaiko txapelketetan; hiru lehenengoan, eta sei bigarrenean. Metal guztiak, maila absolutuan lortutakoak dira. ◀

Jon Rahm Golfa

Barrikoztarra hirugarren sailkatu da, eta taldeka irabazi, bere debutean



Jon Rahm, artxiboko irudian.

Jon Rahm golf jokalaria barrikoztarrak Saudi Arabiako LIV Golf superligarako fitxaketa sinatu zuen iaz, eta Mayakoban (Mexiko) egindako debutean hirugarren sailkatzea lortu zuen. Hala ere, egindako lanari esker, eta bere taldeko, Legion XIIIeko, kapitain gisa, taldeka irabaztea lortu zuen. Rahm zen LIV Golf ligarako erakargaririk handiena eta Mayakobako debutean erabat konfirmatuta geratu da hori: barrikoztarrak titulua lortzeko borrokatu zuen amaiera arte, baina ezin lortu; bi bogeyaz amaitu zuen, eta hirugarren amaitu zuen, playoffan titulua jokatu behar zuten Garciairen eta Niemannen bi kolpera. ◀

Arkote Arrauna

'Txetxu' Laraudogoitiaren omenezko batela aurkeztu dute Plentzian

Arkote Arraun Taldeak Jose Maria Txetxu Laraudogoitia Garay elkarte-ko sortzaileetako baten izena daraman batela aurkeztu zuen otsailaren 3an, klubaren atarian. Laraudogoitia 2022ko otsailean hil zen, eta arraun-taldeko kideek omenaldi hori egin gura izan zioten, 60 urte baino gehiagoz, zendu arte, Arkoteren alde egindako lanagatik. Arkoteko kideek azpimarratu zuten, «Txetxu arkotezale porrokatua zen» eta «estropadak arre eta zirrara handiz» jarraitzen zituen. Hori dela eta, 2022an Bilbon jokatutako KAE1 ligako azken estropadan, arraunlariek Bilboko Uriko 44. Bandera eskuratu zutenean, Laraudogoitiari eskaini zioten. ◀

Gorka Azkona Belatzgorri mendi-taldea

«Taldearen helburuetako bat da urduliztarron arteko erlazioak sustatzea»


Urtarrilaren 12an aurkeztu zuten taldea publikoki, eta daborduko ehun kidetik gora batu dituzte. Lehenengo irteera hilabete honetan egingo dute, Urduliz eta inguruak ezagutzeko.

IKER RINCON MORENO ▶

Urdulizko Belatzgorri mendi-taldearen aurkezpena egin zuten joan den urtarrilaren 12an herriko kultur etxean. 130 lagunetik gora hurbildu ziren hitzordu berezira, elkarre berriaren inguruko informazioa jasotzeko asmoz eta, antolatzaileen esanetan, ekitaldiak «izugarriko arrakasta» izan zuen; aste oso gutxian 100 bazkideetik gora lortu dituzte. Talde berriaren nondik norakoak eta antolatuko dituzten ekintzak ezagutzeko asmoz, taldeko kidea den Gorka Azkonagaz batu gara.

Nondik dator Urdulizen mendi-talde bat sortzearen ideia? Urdulizen, Santa Marinako haitzak ditugu, eta harrizten gaitu hemengo herrikide asko horiei bizkarra emanda bizitzea. Hori dela eta, lagun-talde bat batu ginen, gure ingurua ezagutu eta ezagutaraztea gustatuko litzaigukeelako.

Zer helburu izango ditu taldeak? Lehenik eta behin, jendea mendira eta naturara hurbiltzea eta ondo pasatzea. Horrez gainera, mendian zelan moldatu behar garen azaltzea gustatuko litzaiguke, ezagutza hori ahoz aho pasatzeko belaunaldiz belaunaldi, lehen egiten zen bezala. Era berean, gazteei antolatzeke beste modu bat ezagutarazi nahi diegu, ikus dezaten ez dela beharrezkoa dirua gastatzea ondo pasatzeko eta disfrutatzeke. Gainera, Urduliz, herri moduan, izugarri hazi da azken urteotan, eta uste dugu mendi-talde bat oso aukera ona dela hona etorri garen artean erlazioak sustatzeko eta berton sustriaik botatzeko.



Azkona, ezkerrean, Belatzgorri mendi-taldeko hainbat kidegaz batera. HO DEI TORRES

Edozeini begira

«Elkarren arteko harremanak sustatzeko lekua izatea nahi dugu, eta, beraz, adin guztietarako zabalik gaude. Hau ez da errendimendu altuko talde bat izango, inondik inora»

Ekintzen egutegia

«Datozen sei hilabeteetarako ekintzak zehaztu ditugu, eta lehenengoa otsailean izango da. Urdulizetik hasita, ibilbide zirkular bat egingo dugu, ingurua ezagutzeko»

Interesa duenak zer egin behar du taldeko kide izateko? Gurekin harremanetan jarrita, bileretara bertaratuta, irteeretara etorrita edota eraikitzen ari garen webgunearen birtartez egin dezake; azken hori oraindik eraikitzen ari gara, baina badabil.

Zer motatako ekintzak egingo ditu Belatzgorrik? Hori ikustear dago, taldea hasi baino ez delako egin; apuntatzen doan jendearen arabera joango gara moldatzen. Baina aurkezpenean ikusi genuen garrantzitsua zela egutegi bat aurkeztea, eta dagoeneko lehenengo sei hilabeteontzako jardueren zerrenda egin dugu. Inguruan arituko gara, mendi txikietan, eta baita Galdakaoko Burdin Hesira bisita egin ere, batez ere denon parte-hartzea ahalbidetzeko. Hala ere, Picos de Europara irteera ere egingo dugu, ekainean. Hala ere, ideia da ekitaldi guztietan ibilbide errazak izatea, eta zailak direnean ibilbide bi egotea aukeran. Izan ere, uneotan 100 bazkide baino gehiago gara, eta horien artean ume asko dago. ◀

Zer deriotzozu Erandion TAO jartzeko asmoari?



IGOR MORENO
ERANDIO

TAO beharrezkoa da, inguruko udal-erri guztietan dagoelako ere. Azkenean, gertatzen dena da inguruko gidariak dohainik aparkatzera datozela Erandiora, eta herrikoentzako ez dagoela lekurik. Ez da konponbide orokor bat, oraindik ere ez dagoelako aparkalekurik, baina bada irtenbide posible bat.



NEREA CERECEDO
ERANDIO

Ez nago TAOgaz ados, ez dudalako egunero ordaindu nahi nire herrian aparkatzeagatik; izan ere, egunero hartzen dut kotxea lanera joateko. Gainera, uste dut momentuz ez dugula arazo larririk. Erandioko bidegorri berria jartzean aparkalekuak kenduko dituzte; orduan bai izango ditugu zailtasunak aparkatzeko.



NATI DEL VALLE MURGIA
ERANDIO

Bizilagunen onerako bada, ondo ikusten dut TAO jartzea, hemen arazo larriak ditugulako aparkatzeko eta ondoko udalerrietako jende asko datorrelako horretara, guri lekua kenduz. Hala ere, aspalditik dugun arazoa da. Azkenean, ez da positiboa herrikoak garenentzako TAOrik ez egotea.



AINGERU RODRIGUEZ CELOSEGUI
ERANDIO

Niri ideia ona iruditzen zait. Ez dago modurik hemen aparkatzeko eta Udalak ez du aparkalekuak egiteko proposamenik egiten. Guztiz kontrakoa: gero eta eraikin gehiago egiten ditu aparkalekurik gabe. Beraz, TAOa irtenbide ona izan daiteke, izan ere, urte asko daramatzagu arazo honegaz.



MARIAN LASA
ERANDIO

Hasieran txarto iruditzen zitzaidan, baina egia da azken boladan nire senarra asko dabilela kexatzen aparkalekuagatik. Algortako edo Bilboko jendea Erandiora aparkatzera etortzea txarto iruditzen zait, hemengo herritarrontzako ez dagoelako lekurik. Horregatik irtenbide ona ikusten dut.



CIPRI LLOBREGAT
SESTAO

Nire ustez, egokia da TAOa jartzea, aparkatzea asko ari delako zailtzen. Inguruko herrietako jendea etortzen da hemen kotxea utzi eta metroa hartzeko. Sestaokoa naiz, eta Erandiora lanera natorrenean arazo asko izaten ditut aparkatzeko; nire herrian ere arazo bera dugu, beraz, zerbait egin beharko da.



ANDER RENDON
ERANDIO

Hau kaos bat da, batez ere astelehenetan, azokagatik aparkalekua ixten dutenean. Nik ez dut autoa asko erabiltzen, metroz mugitzen naiz, baina jartzen badute onuragarria izan daiteke, bai; hala ere ordaindu beharko da. Denok gura dugu etxe ondoan aparkatu, baina ez dakit arazoa konpontzeko balioko duen.



BEATRIZ FERNANDEZ VILLAVERDE
ERANDIO

Niri ondo iruditzen zait, beste herrietako jende asko etortzen delako, baita futbol partidua dagoenean ere. Etxe aurrean aparkaleku bat dut, eta ikusi egiten dut. Nire semea da gidatzen duena eta kostatzen zaiola esaten dit, gainera, inguruko herriek dute, Erandio bakarrik falta da; nik horrela ikusten dut.



OTSAILAK 16 FEBRERO
Auditorium // 20:30 // 10 €

SLIDE
(Madril)



OTSAILAK 23 FEBRERO
Auditorium // 20:30 // 10 €

¡GUAPA!
El mono habitado (Euskadi)




MARTXOAK 6 MARZO
Auditorium // 20:30 // 6 €

YERMA
La Dramática Errante (Euskadi)



OTSAILAK 18 FEBRERO
Auditorium // 18:00 // 6 €

ANDEREÑO
Anita Maravillas (Euskadi)



MARTXOAK 1 MARZO
Auditorium // 20:30 // 12 €

ALMACENADOS
Txalo Producciones (Euskadi)



Dominoan

Bete hutsuneak domino zati honek zentzua izan dezan.

The puzzle consists of 12 domino pieces arranged in a 3x4 grid. The pieces are:

- Top row: Two party hats, an empty domino, a blue mitten and a face with eyes, an empty domino, a face with eyes and a yellow glove, a brown boot.
- Middle row: A penguin, a blue mitten, an empty domino, a yellow glove.
- Bottom row: A yellow glove, an empty domino.



Aldea dago

Bi zamaltzain hauek ez dira berdin-berdinak. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.



Zati engainagarriak

Zortzi zatitxo hauek lau iruditik hartuta daude, eta beste laurak engainagarriak dira, hau da, antza duten arren, ez dira guztiz berdinak. Bereiz itzazu.

Kai Nakai Abeslaria

«'Ez zait autotunea gustatzen' dioen jendeak nagi handia ematen dit!»

TESTUA: IKER RINCON MORENO

ARGAZKIA: KAI NAKAI-ADRIANA FARIÑAS ▶

Defini ezazu zeure burua berba bitan. Berritsua eta oso maitagarria!

Zure haurtzaroko oroitzapen bat? Kotxean, gurasoak gidatzen, eta nik, besteak beste, Amaral, La Oreja de Van Gogh eta El Sueño de Morfeoren abestiak abesten jo ta ke.

Badaukazu ohitura txarren bat? TikTok gehiegi begiratzten dut.

Eta aitor dezakezun bizioren bat? Beti dago postrerako lekua.

Zein da zure ametssetako bat? Estadio handi bat betetzea kontzertu batean.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera? Zaila da erabakitzea, baina ahalko banu, nire familia, nire bikotekidea eta kuadrilla, eta horrela irla jendeztatzen dugu. Ah! Eta nola ez, ezin ahaztu nire agaporniak, poz-pozik gongo ziren bertan!

Gorroto duzun topikoa? «Ez zait autotunea gustatzen» esaten duen jendeak nagi handia ematen dit!

Zer hutsegite ez zenuke sekula barkatzen? Nitaz gaizki hitz egitea nire atzetik, eta niri aurpegira ez esatea.

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena? Benidorm Festera aurkeztea! Ez da zorterik egon, baina urte honetan berriz saiatuko gara.

Kontzertuetan gertatutako bitxikeriaren bat? Behin, gogo-aldartean oso egun txar bat izan nuen, eta kontzertua geneukan. Ailegatu ginen eta konturatu nintzen den-dena ahaztu zitzaidala: arropa, abanikoak, pistolak, dantzatzeko kuboak... Bada, aizu! Aurrera egin genuen gainean geneukanarekin, eta kontzertu animatuenetako bat izan zen!

Kontzertuak emateko lekurik onena? Gasteiz, nire etxea delako! Baina esan beharra daukat Bizkaiak asko zaintzen gaituela eta oso gustura gaudela joaten garen bakoitzean!

Non gura zenuke kontzertu bat eman? Bada, nire ametsera bueltatuta, Madrilgo WiZink Center estadioan, adibidez. Badakit bide luzea daukagula aurretik, baina izugarria izango litzateke! ◀



Laburrean. Kai Nakai izen artistikoaz ezagunagoa den Iratxe Aguilera (Gasteiz, 1996) musika urbanoa lantzen duen abeslari eta musikaria da. Besteak beste, reggaettoa, pop musika eta musika elektronikoa bezalako generoak lantzen ditu, betiere euskaraz eta helburu bat buruan duela: genero horiek ere feministak izan daitezkeela. 2019an jaso zuen Durangoko Azokako Sormen Beka, ideia horri ekiteko, eta hurrengo urtean agertu zen Kai Nakai. Ordutik, *Baimenik Gabe* (2020) albuma eta *Maitia* (2021) EP-a argitaratu ditu, baita hainbat single ere, hala nola *Goizertarte*, *Olatu Berrira*, *Aldapeko Sagarra* eta, azkena, *Agur*.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Ezetz asmatu zer jaten dudan!

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 3-6 urteko umeentzako liburu eder hau dugu zuretzako.

Irakurri gura duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, martxoaren 3a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Ustekabeko festa liburua

Pamiela argitaletxearen eskumenez, 4 urtetik beherako umeentzako liburuxka eder hau dugu zozkagai. Galduko duzu lortzeko aukera?

Zozketan parte hartu gura baduzu, martxoaren 3a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Odola kantari ikuskizuna

Martxoaren 2an, zapatuan, Unai Elorriaga eta Josu Aurrekoetxearen errezitaldi hau hartuko du Getxoko Muxikebarri Antzokiak. Arrastiko 20:00etan hasiko da. Zeren zain zaude?

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 25a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Zure gustuko

ikasketak euskaraz

eta etxetik gertu

yhhd

→ ikasi "euskaraz"
"yahi"
"dudalako"

EUSKARAZ IKASI ETA B2 MAILA LORTU



nahidudalako.eus



CURRICULUMA ABERASTERO GILTZA

EUSKARA

AUKERA ZURE ESKUETAN

BILATU EUSKARAZKO IKASKETAK;

Bizkaian euskaraz eskaintzen diren
Batxilergo zein Lanbide Heziketako ikasketak
klik batean.

Zeure iritzia ezinbestekoa da geuretzat.
Sartu www.nahidudalako.eus webgunean,
galdetegia bete eta **sari zoragarriak irabazi.***

* DBH 3 eta 4ko ikasleentzat.



1

Patinete elektrikoa
Mi Electric Scooter Pro 2



2

Tableta
Mi Pad 6 · 11" 6/128 GB

3

Kirolaz, kulturaz eta zinemaz
gozatzeko opari-txartelak

